

Zertan den Euskadi

2015

Espainiako Unitatea

- Euskal ekonomiaren suspertzea azkartuz doa kanpo- zein barne-faktoreen eraginez
- Kanbio-tasak eta petrolioaren prezioak lehiakortasuna bultzatu dute jarduerarekin batera
- Euskadik 29 mila lanpostu irabazi ditzake 2015 eta 2016 artean, baina jarduera tasa eta langabeen enplegagarritasuna hobetzea ditu erronka

Aurkibidea

| | | |
|---|--|----|
| 1 | Editoriala | 3 |
| 2 | Ingurune globala eta Espainiako ekonomia | 5 |
| 3 | Euskal ekonomiaren hazkunde-perspektibak | 9 |
| | 1. Errekoadroa. Euskadiko jarduera ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta: 2015eko 1. hiruhilekoko emaitzak | 29 |
| | 2. Errekoadroa. Nolako sentsibilitatea du Euskadiko ekonomiak Europako zikloaren, kanbio-tasaren eta petrolioaren prezioaren aurrean? BBVA-RVAR ereduan oinarritutako azterketa | 31 |
| | 3. Errekoadroa: Jarduera-tasak azken garaiotan Euskadin izandako bilakaera: egiturazko erronka | 37 |
| 4 | Zer diote lurraldez lurraldeko kontuek? Euskadiren kasua | 44 |
| 5 | Taulak | 53 |

Itxiera data: 2015eko ekainak 8

1 Editoriala

2014ko urrian aurreko *Zertan den Euskadi* argitaratu zenetik¹, **jarduera ekonomikoa** eta enpleguaren sorrera **bizkortu egin dira progresiboki**. Hala, 2014an, % 1,2ko hazkundea gertatu zen (estatuko % 1,4ko batez bestekoaren azpitik), eta hurrengo hiruhilekoetan hobetzeko joerari eustea espero da, kanpoko nahiz barneko hainbat faktoreren laguntzarekin. Alde batetik, **petrolioaren prezioaren beherakada esanguratsuak** hainbat ondorio zuzen izan ditu, hala nola familien errenta eskuragarria hobetzea eta ekoizpen-kostuak merkatzea. Bestetik, **Europako Banku Zentralaren (EBZ) moneta-politikak** finantzaketa-kostua nabarmenki murriztu duenez, eragin esanguratsua izan du horrek euroak dolarrarekiko duen kanbio-tasan, eta enpresen lehiakortasuna hobetu du.

Jardueraren inertzia positiboa gehitu behar zaio aurrekoari, barne-eskaria sendotu egin baita, kontsumo pribatua, zehazki. **Argitalpen hau ixteko unean eskuragarri dauden adierazleek islatzen dutenez, 2015eko bigarren hiruhilekoan Euskadiko ekonomia % 0,6 handitu daiteke hiruhileko** (urteko % 2,4ko maila gaindituta), eta badirudi jardueraren hobekuntza horri eutsiko zaiola hirugarren hiruhilekoan ere (ikusi 1. errekoadroa). Nazioarteko egoera ere modu moderatuan bizkortzea espero da, eta, horren eta aurreko faktoreen ondorioz, **BPGren hazkunde-aurreikuspenak gorantz berrikusi dira: zehazki, 2015ean, BPGren hazkundea % 2,7 ingurukoa izatea espero da, eta, 2016an, erritmoa azkartzen jarraitzeko aukera ikusten da, % 3ra arte**. Aurreikuspen horiek beteko balira, 29.000 lanpostu sortuko lirateke eskualdean.

Aurrera begira, hainbat faktorek bultzatuko dute barne-eskariaren eta Euskadiko esportazioen suspertzea. Enpresen lehiakortasuna hobetuko da, petrolioaren prezioaren beherakadak, kanbio-tasaren depreziazioak eta interes-tasen murrizketak bultzatuta, eta, horrekin batera, zerga- eta moneta-politikan gertatutako aldaketek kontsumoa eta inbertsioa hobetzen lagunduko dute; EDBren barnean toki hobea izatea ekarriko du horrek. Are gehiago, kontuan izaten badugu abiarazitako neurrietako batzuk, moneta-politikan abiarazitakoak, zehazki, espero zena baino eragin handiagoa izaten ari direla.

Petrolioaren prezioak nahiko baxu eutsi dio, 2014ko batez bestekoarekin alderatuta, eta horrek bultzada adierazgarria ekar diezaioke euskal ekonomiari 2015ean eta 2016an. Oro har, erregaiaren kostuaren murrizketaren zati handi bat eskaintza-faktoreekin lotuta dagoela ematen du, eta ez munduko eskari agregatuaren moteltzearekin. Badirudi ekonomia inportatzaileetan eragin positiboa eta garrantzitsua izango duela horrek, eta Espainiakoak ezaugarri hori du. Zehazki, **egindako estimazioen arabera, Euskadiko BPG 1,2 p.p. handi daiteke 2015ean, kostu energetiko txikiagoak** industrian, kanpo-eskarian eta kontsumoan izan dezakeen eraginaren ondorioz (ikusi argitalpen honetako 2. errekoadroa).

Halaber, esperotakoa baino hedapen-politika kuantitatibo handiagoa egin du EBZk, eta irekita utzi du programa amaitzeko data (2016ko irailera arte, gutxienez). **Ekintza horiek sektore pribatuaren finantzaketa-kostuak murriztuko dituzte**, nagusiki, Espainiakoaren antzeko ekonomiatan, Europako finantza-sistemaren zatiketak euroguneko beste herrialde batzuetan baino interes-tasa handiagoak sortu baitzituen familientzat eta enpresentzat. Kreditu-eragiketa berriak handitzea bultzatuko du aurrekoak, eta barne-eskariaren jokaera ona sustatuko du. Bi alderdi horiek hain positiboak ez diren beste faktore batzuk konpentsatu dituzte, hala nola arriskuaren mutualizazio mugatua. EBZren moneta-politika Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federalak garatuko duenaren bestelakoa izatea aurreikusten da, Erreserba Federala 2015 amaitu aurretik interes-tasa igotzen hasiko dela espero baita. Dibergentzia horrek **euroaren depreziazio-bidea luzatuko du, eta dolarraren parean jarriko da ia, 2015eko batez bestekoarekiko dagokionez**. BBVA Research-en estimazioen arabera, 2014ko balioarekiko % 20ko depreziazio horrek

1: Hemen eskuragarri: https://www.bbva.com/research/wp-content/uploads/2014/10/Situaci%C3%B3n_Pa%C3%ADsVasco_2014.pdf

1 p.p. bultza dezake Euskadiko BPG 2015ean, esportazioen lehiakortasuna hobetzearen ondorioz (ikus 2. errekoadroa).

Aurreko horri guztiari **eskualderako mesedegarria gertatuko den ingurune bat** erantsi behar zaio, eta **aukera eman behar lioke horrek esportazioen sektoreari** –automobilgintzaren eta ekipo-ondasunen sektoreei, bereziki– **dinamismo apur bat berreskuratzeko**, 2014ko bigarren seihilekoan hautemandakoaren ildotik. Eskualdeko bazkide komertzial nagusien hazkunde handiagoa berresten bada, inbertsioek gora hasi beharko dute, finantzaketen ataleko hobekuntzak ere lagungarri gertatuko baitira horretarako. Beste autonomia-erkidego batzuetan baino eragin handiagoa izan behar luke horrek Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan. Euskal industriaren espezializazioa oinarri hartuta –bitarteko ondasunetara eta ekipo-ondasunetara zuzentzen da bereziki–, bizkortu egin behar lirarteke ondasun eta zerbitzuen esportazioak, eta ekarpen positiboak egin behar lizkioke horrek eskualdearen hazkunderari 2015ean.

Dena den, **agertoki hori ez da arriskurik gabea**. Lehenengo eta behin, askotariko finantza-tentsioak eragin ditzakete krisiarekin lotuta sortu diren tentsio geopolitikoek, petrolioaren prezioa bat-batean erortzeak, Erreserba Federalaren moneta-politikak goraka ari diren herrialdeetan izandako eraginak sortutako ziurgabetasunak eta Grezian ordainketa-etendura saihesteko abiarazitako negoziatioek; horrek guztiak eragin negatiboa izan dezake jarduera ekonomikoan. Bigarrenik, **hauteskunde-egutegi bete dute aurrez aurre** Espainiak eta Europak, **eta oraindik ere beharrezko diren** eta hurrengo urteetan ezarri beharko diren **erreforma eta politika ekonomikoak baldintza ditzake horrek**. Euskadin, **Eusko Jaurlaritzak ez luke arazorik izan behar 2015eko ekitaldia egonkortasun-helburuak beteta ixteko** (eskualdeko BPGren % -0,7), jarduera suspertzea espero baita; gastua doitzeko abiarazitako politika hein batean lasaitu ere egin dezake, onartutako aurrekontuan aurreikusten denez. Dena den, ez da ahaztu behar biztanleko gastu publiko doituia Estatuko batez bestekoa baino askoz handiagoa dela Euskadin, Lurralde Lurraldeko Kontu berrietan oinarritzen bagara (argitalpen honetako 4. kapituluaz aztertu da gai hau). Gainera, **ziurtatu egin beharko da 2015eko lehen hiruhilekoko euskal esportazioen moteltzea ez dela lehiakortasun-arazoekin lotutako sintoma bat**.

Azkenik, hainbat erronka ditu parez pare Euskadik epe luzeagora begira, honako hauekin lotuta batez ere: enplegu bila ari direnen enplegu aukerak, talentua eta inbertsioak erakartzea eta gazteen eta batik bat 54 urtetik gorakoekin jarduera-tasa indartzea (ikus 3. errekoadroa), betiere faktore demografikoa kontuan hartuta. Helburuon artean, lehenetsuna izango du enpleguen sorrera bizkortzeak eta hori produktibitateari eustearekin bateragarri egiteak, Europako eskualde aurreratuagoekin bat egiten lagunduko baitigu horrek. Lan-kontratu mugagabeen prozesu hori suspertzeko, **kontratazio-sistema berritzea proposatu du BBVA Research-ek**. Hala egingo balitz, proposamenak **aldi baterako lanen tasa eta langabezia-tasa murriztuko lituzke, eta, gainera, produktibitatea eta soldatak handituko lituzke**². Produktibitate handiagoa sustatzeko, ezinbestekoa da aurrera egitea araubideetan (erakundeen esparrua), lehiakortasuna indartzean eta giza kapitala hobetzean³. Ekonomiarako horren positiboa den ingurune horrek emango duen aukera berria erreforma handizaleak abiarazteko baliatu behar da, aldeko ditugun haize hauek beste alde batetik jotzen dutenean hazkunderari eutsi ahal izateko.

2: Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ikusi *Situación España* aldizkariko 2. errekoadroa, 2015eko lehen hiruhilekoari dagokiona. Hemen: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-espana-primer-trimestre-de-2015>

3 Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, ikusi *Situación España* aldizkariko 3. errekoadroa, 2015eko lehen hiruhilekoari dagokiona. Hemen: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-espana-primer-trimestre-de-2015>

2 Ingurune globala eta Espainiako ekonomia

Ekonomia globalak % 3 inguruko erritmoan hazten amaitu zuen 2014. urtea, eta, probabilitate gehien duen agertokiaren arabera, jardunak hobetzen jarraituko du 2015ean eta 2016an. Beraz, hurrengo hiruhilekoei begira, hazkunde global neurritsuari eutsiko zaio, eta munduko BPGk gorantz jarraituko du, 2016. urtean % 3,9ko aurrerapena lortu arte, ekonomia garatuek eskaintzen dioten euskarriari esker, 2010. urteaz geroztik izandako erregistrorik onena lortuko baitute⁴.

2014. urtean % 0,9 hazi ondoren, ekonomia garatuen artean, euroguneak izan du jokaera erlatiborik onena 2015. urte hasieran, petrolioaren prezioaren beherakadak bultzatuta. Gainera, finantzaketa-baldintzak nasaitzea eta euroaren depreziazioa –EBZren hedapen kuantitatiborako programak bultzatutakoak–, eta baita zerga-politika jada hain murriztailea ez izatea ere, funtsezko faktoreak izan dira azken hilabeteetako suspertze-dinamikarako. Programa horri dagokionez, erantzun handiagoa erakutsi duten transmisio-kanalen artean, kanbioa (dolarrekiko batez besteko kotizazioa pare samarrean izango da 2015ean) eta epe luzeko interes-tasen murrizketa aipatu behar dira. Horrek esan nahiko luke urteko lehenengo hiru hilabeteetan BPGren hazkundea % 0,4 eta % 0,5 artekoa izan dela, eta 2011. urtearen erdialdetik izan den erritmorik handiena litzateke hori. Aurrera begira, jardunak hobera egingo duela aurreikusten da: 2015ean % 1,6ko hazkundea espero da, eta % 2,2koa 2016an. Aurrekoari, barne eskariaren hobekuntza progresiboa gehitu behar zaio, eta, bestalde, petrolioaren prezioak ere pixkanaka gora egingo duela espero denez, inflazio orokorrak % 0 inguruan eutsiko dio 2015ean, eta % 1,5etik beherakoa izango da 2016an⁵.

Espainia azkarrago suspertzen ari da, barne- eta kanpo-faktoreetan babestuta

2014an, Espainiako ekonomiak 2013ko bigarren sei hilekoan abiarazitako suspertzea finkatu zuen. Nazioarteko ingurunea arriskugabea izan ez arren⁶, urteak aurrera egin ahala finkatu egin zen jardunaren eta enpleguaren tonu positiboa, **zerga- eta diru-politiken euskarri handiagorekin, konfiantza handitzearen eta azken urteetako egitura-aldaketan ondorioz.** Azken horien artean, honako hauek aipatu behar dira: barneko desoreken zuzenketa, abian jarritako zenbait erreforma eta ekoizpena kanporantz zuzendu izana. Aurrerapen horien ildotik, urteko erdiko hiruhilekoetan, hazkundea % 2,0ko urteko tasan egonkortu zen, eta azkeneko hiruhilekoan azkartu egin zen, % 3,0a iritsi arte.

Aurreko guztiaren ondorioz, **Espainiako ekonomiak BPGren % 1,4ko igoerarekin itxi zuen 2014ko ekitaldia, aurreko Situación País Vasco/Zertan den Euskadi argitalpenean adierazitakoa gaindituz. Hazkundearen osaerari dagokionez,** kontsumoaren igoera iraunkorra eta ekoizpenetako inbertsioa nabarmendu ziren; horiekin batera, etxebizitzaren eraikuntzako inbertsioaren ziklo-aldaketa ere gertatu zen, eta horiek guztiek kanpo-eskari garbiaren ekarpen negatiboa konpentsatu zuten.

2015. urtearen hasieran, susperraldiak sendotzen jarraitu du. BPGren estimazioaren aurrerapenak, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) argitaratutakoak, Espainiako ekonomia 1H15ean % 0,9 h/h handitu zela adierazi zuen, eta 2015eko bigarren hiruhilekoari begira, MICA-BBVA ereduaren jasotako informazioak %1,1eko (h/h) hedapen-erritmorik iritsi daitekeela iradokitzen du (ikusi 2.1 grafikoa). Ibilbide hori bat dator Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestako (EAE-BBVA) emaitzekin, aldeko hazkunde-espektatibak adierazten baitituzte horiek ere (ikusi 2.2 grafikoa eta 1. errekoadroa).


4: Agertoki globalari buruzko zehaztasun gehiago izateko, ikusi 2015eko bigarren hiruhilekoari buruzko Situación Global aldizkaria. Hemen dago eskuragarri: <https://www.bbvaesearch.com/public-compuesta/situacion-global-segundo-trimestre-2015/>

5: Europako agertokiari buruzko zehaztasun gehiago izateko, ikusi 2015eko bigarren hiruhilekoari buruzko Situación Europa aldizkaria. Hemen dago eskuragarri: <https://www.bbvaesearch.com/public-compuesta/situacion-europa-segundo-trimestre-2015/>

6: Ereku geografiko handien moteltzea (EDB izan ezik) eta finantza-aldakortasunaren eta tentsio geopolitikoaren iraunkortasuna nabarmentzen dira.

2.1 grafikoa


Espainia: BPGren hazkundera eta MICA-BBVA ereduaren aurreikuspenak (% h/h)



(a): aurreikuspena.
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.2 grafikoa

Espainia: hazkundera ekonomiko eta Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestako parte-hartzaileen espektatibak aurreko hiruhilekoan



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Urteko lehen zatian hautemandako jardunaren azkartzea kanpo- nahiz barne-faktoreen ondorio da. Lehenengoan artean, honako hauek aipa daitezke: **petrolioaren prezioa uste baino gehiago murriztu da, Europako eskaria aurreikusitakoa baino gehiago hobetu da eta, batez ere, EBZren diru-politikaren eragin handiagoa gertatu da,** kanbio-tasaren depreziatio handiagoaren ondorioz. Bigarrenengoan artean, zerga-politikak murriztailea izateari utzi diola aipatu behar da. Halaber, **lan-merkatua eta konfiantza hobetzen ari dira pixkana eta, horrek ere, kontsumorako eta inbertsiorako erabakiak sustatu ditu;** hein batean, **egiturazko elementuetan oinarritzen da hori, hots, barne-desoreken zuzenketan eta egindako zenbait erreformatan.** Horrekin lotuta, eskari pribatuaren zenbait osagaien eragile batzuek hobera egin dute (esate baterako, kontsumoan); hobekuntza hori duela hiru hilabete aurreikusitakoa baino sendoagoa izan da, eta epe luzeko oreka mailetatik hurbil kokatzen ditu horrek. Azkenik, duela hiru hilabete aurreikusitako arriskuak batzuk (geopolitikoak) ez dira gauzatu, edo espero baino eragin txikiagoa izan dute eta, zenbait kasutan, epe laburreko jardunari positiboki eragin diote (zerga-doikuntzaren nasaitzea).

Laburtuz, Espainiako ekonomiaren oinarriek hurrengo biurtekoan suspertzea finkatu egingo dela bermatzen dute. **BPGk bere joerazko mailaren gaineratik handitzen jarraitzea espero da, hurrengo hilabeteetan moteltze neurritsua gertatzea ere espero den arren,** zenbait faktorek gutxiago bultzatuko dutelako – petrolioaren prezioak edo zerga-beherapenak, adibidez– eta gertaera geopolitikoaren ondorioz gerta daitekeen ziurgabetasunagatik. Aurreko guztiak 2015. urtean BPG % 3,0 handitzea ekarriko luke, eta % 2,7 2016an (ikus 2.1 koadroa). Hedapen-erritmo horrek **enpleguen sorrera garbia ekar lezake, 1.000.000 lanpostu ingurukoa aldiaren amaieran,** eta, horrekin, **langabezia-tasa murriztuko litzateke, aurreikuspen epearen amaieran % 20tik azpikoa izatera iritsi arte**⁷. Txosten honetan aurkeztutako agertokiak 2015erako hazkundera-espektatibei dagokienez goranzko berrikuspina izan arren (0,3 p.p.-koa)⁸, **esperotako suspertzearen atzean dauden elementuak ez dira modu esanguratsuan aldatu.** Hurrengo bi urteotan **hazkundera ekonomiko barne eskarian oinarrituko da nagusiki,** 2007. urtetik lehen aldiz, urteko saldo positiboa agertuko duelarik bere osagai guztietan⁹.

7: Batez beste, okupazioak % 3,0-ko hazkundera izango du urtean, eta langabezia-tasa % 21,3 ingurukoa izango da 2016an.

8: 2015eko lehen hiruhilekoari dagokion Situación España argitalpenean Espainiako ekonomiarako aurkeztutako agertokia hemen:

<https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-espana-primer-trimestre-de-2015/>

9: Espainiako agertokiari buruzko zehaztasun gehiago izateko, ikusi 2015eko bigarren hiruhilekoari buruzko Situación España aldizkaria. Hemen

eskuragarri: https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2015/05/Situacion-Espana_2T15.pdf

2.1. koadroa

Espainia: aurreikuspen makroekonomikoak

| (u/u %-tan, kontraktorik adierazi ezean) | 1H14 | 2H14 | 3H14 | 4H14 | 1H15 | 2014 | 2015 (a) | 2016 (a) |
|---|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|------------|------------|
| Gastua Azken Kontsumo Nazionalan | 1,1 | 1,8 | 2,1 | 2,4 | 2,6 | 1,8 | 2,5 | 1,9 |
| G.A.K. Pribatuan | 1,3 | 2,3 | 2,7 | 3,3 | 3,4 | 2,4 | 3,1 | 2,4 |
| G.A.K. HH. AA. | 0,3 | 0,3 | 0,3 | -0,5 | 0,1 | 0,1 | 0,8 | 0,6 |
| Kapital Finkoaren Eraketa Gordina | 0,8 | 3,9 | 3,9 | 5,1 | 6,0 | 3,4 | 5,7 | 6,4 |
| Ekipoa eta Makineria | 15,8 | 12,9 | 10,2 | 10,4 | 9,4 | 12,2 | 7,8 | 6,7 |
| Eraikuntza | -7,4 | -0,7 | 0,1 | 2,4 | 4,9 | -1,5 | 4,3 | 5,4 |
| Etxebizitza | -6,6 | -2,0 | -0,2 | 2,1 | 2,3 | -1,8 | 4,5 | 9,0 |
| Beste eraikin eta eraikuntza batzuk | -8,0 | 0,3 | 0,3 | 2,6 | 6,8 | -1,3 | 4,1 | 2,7 |
| Eskari nazionala (*) | 1,2 | 2,3 | 2,6 | 2,7 | 3,0 | 2,2 | 3,0 | 2,7 |
| Esportazioak | 6,4 | 1,0 | 4,5 | 4,7 | 5,7 | 4,2 | 6,1 | 7,5 |
| Inportazioak | 9,4 | 4,9 | 8,6 | 7,7 | 7,4 | 7,6 | 6,5 | 7,8 |
| Kanpo-saldoa (*) | -0,6 | -1,1 | -1,0 | -0,7 | -0,3 | -0,8 | 0,0 | 0,1 |
| BPG erreala mp | 0,6 | 1,2 | 1,6 | 2,0 | 2,7 | 1,4 | 3,0 | 2,7 |
| BPG nominala mp | 0,0 | 0,8 | 1,4 | 1,4 | 3,2 | 0,9 | 3,8 | 4,9 |
| Pro-memoria | | | | | | | | |
| BPG, etxebizitza arloko inbertsiorik gabe | 1,0 | 1,4 | 1,7 | 2,0 | 2,7 | 1,5 | 3,0 | 2,5 |
| BPG, eraikuntza gabe | 1,6 | 1,5 | 1,8 | 2,0 | 2,4 | 1,7 | 2,9 | 2,5 |
| Enplegua guztira (BAI/EPA) | -0,5 | 1,1 | 1,6 | 2,5 | 3,0 | 1,2 | 3,0 | 2,9 |
| Langabezia-tasa (bizt. akt. %) | 25,9 | 24,5 | 23,7 | 23,7 | 23,8 | 24,4 | 22,3 | 20,7 |
| Enplegua guztira (l.o.b.) | -0,4 | 1,0 | 1,7 | 2,4 | 2,8 | 1,2 | 2,6 | 2,4 |

(*) Hazkundeari egindako ekarpenak.

(e): estimazioa; (a): aurreikuspena.

Iturria: BBVA Research, INEn eta Espainiako Bankuan oinarrituta

Dena den, gogorarazi behar da suspertzeak hainbat arriskuri aurre egin beharko diela. Kanpora begira, arrisku geopolitikoek mehatxu izaten jarraitzen dute, nagusiki Greziaren eta erakundeen arteko negoziazioekin lotutakoek, baina baita beste batzuk ere, hala nola Errusiako, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko krisiak. Bestalde, Estatu Batuetako Erreserba Federalak diru-politikan egindako aldaketen aurrean garatze bidean diren merkatuek izango duten erantzunari buruzko ziurgabetasuna ez da desagertu. Negatiboa izan daiteke baita ere, merkatu horietako batzuentzat, petrolioaren prezioaren beharakadaren ondorioz sortutako ziurgabetasuna. Azkenik, Txinan hazkundeak izan duen moteltzeak eragin negatiboa izan dezake mundu-eskarian, eta Espainiako ondasun eta zerbitzuen eskariari negatiboki erasan diezaiolke horrek.

Europar, hauteskunde-egutegiak zortzi herrialderen etorkizuna behintzat baldintzatzen jarraitzen du. Hautestontzietan hautatutako gobernuek garatuko dituzten politikak giltzarri izango dira ziurgabetasunak hazkundera oztopatuko duen arrisku-agertokiak saihesteko. Horrez gain, finantza-zatiketa murrizteko prozesua ez dago amaituta, eta EBZk aktiboak erosteak ondorio txar bat ekar dezake, alegia, horren ibilbidea motel daiteke arriskuaren mutualizazio osoa kontuan hartu ez delako.¹⁰ Areago joanda, euroguneko kide diren estatuek egiturazko hazkunderako gaitasuna handituko duten eskaintza-politikak landu behar dituzte.

Azkenik, **Espainian**, zerbitzuen esportazioek dinamismo handia erakutsi arren (turismoak, bereziki), **ondasunen kanporako salmentek ez dute gora egin**. Geldialdi hori behin-behinekotzat jotzen den arren, 2014ko lehenengo bederatzi hilabeteetan gertatutako igoera handiaren ondorioz ziurrenik, barne-eskariaren

10: Zehaztasun gehiagorako, ikusi BBVA Research-en EBZren Behatokia, 2015eko urtarrilaren 22koa. Hemen eskuragarri: <http://goo.gl/cVng0E>

hazkundearen aurrean internazionalizaziorako prozesua moteldu izanaren arriskua hor dago. Agertoki hori kezagarria izango litzateke, izan ere, Espainiako ekonomiaren suspertzearen iraunkortasuna eta desoreken zuzenketa, hein handi batean, ondasun eta zerbitzuen esportazioen goranzko joera finkatzearen menpe dago.

Gainera, Espainiako ekonomiak hurrengo urteei begira duen erronka nagusietako bat **inbertsioa handitzea da, aldi berean munduko gainerako herrialdeekin duen zorpetzea murrizten delarik**; horretarako, atzerriko inbertsio zuzena sartzeaz gain, beharrezkoa da baita ere barne-aurrezkoa handitzea. **Dena den, Espainiak hazkunde jarraia eta iraunkorra lortzeko erronkari egin behar dio aurre**. Beharrezkoa da ekoizpen-ereduan aldaketak lehengoratzeko saihestea, kanpo-desoreken doikuntza etengo bailitzateke.

3 Euskal ekonomiaren hazkunde-perspektibak

2014ko urrian *Zertan den Euskadi* argitaratu zenetik, hainbat faktorek eragin diote eskualdearen ekonomiari. **Europaren moneta-politika hedakorra, euroaren depreziazioa eta petrolioaren prezioaren bat-bateko gainbehera** nabarmendu dira nazioarteko ekonomiaren testuinguruan. Eta espero zitekeena baino bilakaera hobea izan dute guztiek. Euskadiko ekonomian, **barne-eskariak ekarpen handiagoa egin dio hazkunderari**, eta horren akuilu izan dira **konfiantza sendotzea eta zerga-doikuntza** hobea.

Euskal ekonomiaren bilakaera positiboagoa berresten du 2015. urtearen hasierak, eta badaude susperraldi horrek jarraitu egingo duela pentsatzeko arrazoiak, oinarri ekonomikoen hobekuntza ikusita. Beraz, agertoki nagusi horren gainean arrisku batzuk badauden arren, **goranzko joera hartuta berrikusi dira Euskadiko BPGren hazkunde-aurreikuspenak: % 2,7koa 2015rako eta % 3koa 2016rako**. Bi urteotako epealdi amaieran **euskal ekonomiak 29 mila enplegu sortzea** dakar horrek.

Krisialdian BPGren doikuntza handiagoa izan dela erakutsi du Espainiako Eskualde Kontabilitateak, eta 2014an motelago atera dela

Espainiako Eskualde Kontabilitatea argitalpena (CRE), 2010eko oinarria duena¹¹, abiapuntutzat hartuta eta 2014ko BPGren hazkunderaren lehen estimazioak ikusita, **bi seinale** nagusi ageri dira: **lehenengo eta behin**, 2010etik euskal ekonomiak erakutsi duen jokabidea zuzendu egiten da, **2010-2012 hirurtekoko bilakaerak aurrez iragarria baino antz handiagoa du orain Espainiako ekonomiaren batez bestekoarekin, eta atzeraldia soilik apur bat txikiagoa izan dela islatzen du. Bigarrenik, eskualdeko BPGren hazkundera % 1,2koa izan zen 2014an, esperotakoaren ildotik**, eta horrek berretsi baino ez du egiten euskal ekonomia Espainiako gainerako eskualdeetan sumatu dena baino motelago ari dela irteten krisiaren azken zati honetatik.

Etxeetako kontsumoa pizten ari da pixkana

Espainia osoan sumatu denaren ildotik eta 2013an hasitako joera aldatu ondoren, **etxeetako kontsumoak modu positiboan egin du aurrera 2014an**, eta hainbat euskarri izan ditu aurrerabide horrek: lan-merkatuaren dinamismoa, errenta erabilgarriaren hazkundera, **egoera ekonomikoari buruzko ikuspegi hobea**¹², finantza-aberastasun garbia handitzea, interes-tasen murrizketak ekarritako finantza-baldintza lasaiagoak, eta PIVE programaren¹³ indarraldia. Ildo horretatik, ibilgailuen matrikulazioak % 18,7 handitu ziren Euskadin 2014an, eta bat dator hori batez beste Espainian sumatu den joerarekin (ikus 3.1 grafikoa).

Txikizkako salmenten bilakaera ikusita, euskal kontsumoa erritmo motelagoan haziko dela auresan daiteke, nahiz eta, batez beste, antzeko hazkundera izan zituzten 2014an (% 0,7 h/h); **Espainian eutsi egin zitzaion berorien susperraldiari, baina, Euskadin, leunagoa izan zen**: lehen seihilekoan antzeko hazkundera izan zuten batez beste (+% 0,8% h/h UEEZ Espainian, eta % 1 Euskadin, neurri batean 4H2013arekiko konparaketa eraginaren ondorioz), baina, 2014ko bigarren seihilekoan, Euskadik halako uzurtze bat izan zuen hazkunde horretan (% 0,4 batez beste h/h); Espainian, aldiz, ez zen halakorik gertatu (+% 0,7% h/h batez beste). Joera hori areagotu egingo zen, 2015az eskura ditugun lehen datuen arabera. Aurreikuspenek diotenez, txikizkako salmentek beherezko joera txiki batekin itxiko dute lehen seihilekoa Euskadin (2015eko 1. seihilekoa: % -0,3 h/h), eta, Espainian, suspertu egingo dira (% +0,5 h/h Espainian;


11: Informazio zehatzagoa izateko, ikusi: *Contabilidad Regional de España* (CRE), hemen: <http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=%2F135%2Fp010&file=inebase&L=0>

12: Ikusi 1. errekoadroa: jardura ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta.

13: Hurrenez hurren 10 eta 7 urte baino gehiago dituzten auto pribatuak eta ibilgailu komertzial arinak energetikoki eraginkorragoak diren beste batzuek ordezkatzeko du xede PIVE planak. Abian da PIVE plan berria 2015eko martxoaren 1az geroztik. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi: <https://www.bbva-research.com/publicaciones/espana-las-matriculaciones-de-turismos-volvieron-a-crecer-mas-de-lo-esperado/>


ikusi 3.2 grafikoa). EAEko etxeetan kontsumoaren susperraldia beranduago eta leunago datorrela berretsiko luke horrek. Dena den, autoen matrikulazioek joera dinamikoari eusten diote, PIVE plan berriak bultzatuta.

3.1 grafikoa
Autoen matrikulazioak (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Trafiko Zuzendaritza Nagusian (DGT) oinarrituta

3.2 grafikoa
Txikizkako salmentak (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Aurreko urteetako zerga-ahaleginak aukera damaio Euskadiri 2015ean politika hedakorak sustatzeko

Eskualdeko BPGri dagokionez, % 1,0ko defizitarekin itxi zuen 2014. urtea Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE), eta aurreko urtean hautemandakoa baino bi hamarren gutxiago da hori; beraz, aurrekontu-egonkortasunerako hartutako konpromisoa bete du aurten ere (ikusi 3.3 grafikoa). Azken urteetan egindako ahalegina aztertzen badugu, argi ikusten da 3.4 grafikoa: 2013an, doikuntza batez ere gastuaren aldean izan zen –nagusiki kapital-gastuan, eta, neurri txikiagoan, tarteko kontsumoetan–, eta, aldiz, 2014an, **defizita murriztea batez ere diru-sarreraren eskutik etorri da.**

Aurrekontuen bilakaera hobea lagun, zor publikoaren hazkunde-erritmoa berriro ere moderatu egin zuen Eusko Jaurlaritzak 2014an, eta ez zuen jo beharrik izan gobernu zentralak likideziaren arloan emandako erraztasunetara. Ildo horretatik, **EAEren zorra 0,8 p.p. handitu zen 2014an, eta BPGren % 13,9 beste da;** autonomia-erkidegoek batez beste izan zutenetik (BPGren % 22,4) behera kokatu zen, eta autonomia-erkidegoen artean bigarren txikiena. Testuinguru horretan, gainerako autonomia-erkidegoek baino egoera hobea du orain ere Euskadik, autonomia-erkidegoen batez bestekoaren azpitik kokatzen baitira defizita eta zorra (ikusi 3.5 grafikoa).


Aurrera begira, Euskal Autonomia Erkidegoak 2015erako onartutako aurrekontuak gastua doitzeko politika arintzen jarraitzen du, eta, interes ordainketagatiko gastuaren atalean izan ezik –ia egonkor jarraituko du aurreko urteko aurreikuspenekin alderatuta–, gainerako atal guztietan aurrekontua handitzea aurreikusten da. Transferentzia arruntetan aurreikusten den hazkundera nabarmentzen da, eta gizarte-politikak suspertzearen eta soldatapekoei ordainsaria ordaintzearen ondorio izan daiteke hori (2012ari dagokion aparteko ordainsaria itzultzeak eragindakoa). Diru-sarreraren arloan, diru-sarrera ez-finantzarioen % 4tik gorako hazkundera islatzen du aurrekontuak 2014ko lehen aurreikuspenetik, Foru Aldundietatik datozen ekarpenen gorakadak medio.

2015eko martxora arte aurrekontu-gauzatzeari buruz ezagutzen diren datuek berretsi egin dute Eusko Jaurlaritzak urte horretarako diru-sarreraren atalean aurreikusitako bilakaera, % 5,7 hazi baitira, Foru

Aldundietatik datozen transferentzietan esker. Aldiz, gastua ia % 2,0 jaitsi da martxora arte, interesen kargan eta kapital-gastuetan sumatutako doikuntzen ondorioz. Horren guztiaren ondorioz, **Euskadik BPGrekiko % 0,2ko superabitarekin itxi zuen martxoa, iaz epe horretan kontuak orekatuta zituen bitartean.**


Aurten Euskadik aurre egin beharko dio *opor fiskal*¹⁴ izenez ezagutzen diren diru-laguntzen zenbatekoa garaiz ez berreskuratu izanagatik EBko Justizia Auzitegiak ezarritako isunaren zati bati, baina kopuru txikia da aurrekontuekiko -21 milioi euro inguru, eskualdeko BPGren %0,03-. Hala, **aurrekontuak hobeto gauzatu izanak eta espero den susperraldi ekonomikoak egonkortasun-helburua (% -0,7) betetzen lagundu beharko liokete.**

3.3 grafikoa
EAE: hiruhilekoko finantzaketarako gaitasuna/beharra (eskualdeko BPGren %)




Iturria: BBVA Research, MINHAPen oinarrituta

3.4 grafikoa
EAE: zerga-doikuntza* (eskualdeko BPGren puntu portzentualak)



(*) Finantzaketa-sistemaren likidazioen efektuak doituta

3.5 grafikoa
AAEE: defizit eta zor publikoa 2014an (eskualdeko BPGren %)



Iturria: BBVA Research, MINHAPen eta BdEn oinarrituta

14: Laguntzak berreskuratzea eta zigorra Foru Aldundiei dagozkie egiazki. Baina Eusko Jaurlaritzarako ekarpenetarako eskura saldo garbi txikiagoa izatea adierazten du horrek, eta Foru Aldundien ekarpenetatik elikatzen da hura batik bat. Aldundi horiek, tokiko erakunde diren neurrian, aurrekontu-orekari eutsi behar diote eta ez dute gehiago zorpetzerik.

Etxebizitzen eskariaren hazkundera eraikuntza-jardueran islatu da

Higiezin merkatuko 2014ko datuek halako inflexio-puntu bat iradokitzen dute sektorearen bilakaeran. Alde batetik, **salmenten gorakada Espainiako batez bestekoaren apur bat gaintik** kokatu zen, nahiz eta maila minimoetatik abiatu. Bestalde, **eraikuntza-jarduera suspertzen** hasi zen pixkana, oso modu xumean, ondoz ondoko sei urtetan behera egin ondoren. Etxebizitza prezioen zuzenketa, berriz, aurreko urtean baino zertxobait zorrotzagoa izan zen 2014an.

Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera, 2014an etxebizitzen salmentek dinamismo handiagoa erakutsi zuten Euskadin, batez beste, Espainian baino. Zehazki, eskualdean **iazko urtean saldu ziren etxebizitzaren kopurua % 29 hazi zen, Estatuan baino 7 p.p. gehiago**. Salmenten hazkundera horren sostengu izan dira, besteak beste, finantza-merkatuen egonkortasuna, interes-tasei nahiko behean eustea, enplegua sortzea edota etxeetan konfiantza handiagoa izatea. Baina eskualdean salmentetan izan den jokabide berezia batez ere **barne eskariaren bilakaera hobeari zor zaio**, eta bi faktorek eragin dute hori. Batetik, krisi globalaren inpaktua apur bat txixixeagoa izan da eta horrek, egungo susperraldi ekonomikoaren hasiera honetan, egoera hobean kokatzen du eskaria Euskadin, langabeziak ere gutxiago zigortu baitu. Bigarrenik, krisiaren bigarren zatian (2013an, bereziki) Euskadin inpaktua handiagoa izateak ondorioa izan du konparaketa oinarrian, aurreko bi urteetan salmentek doikuntza handiagoak izatearen ondorioz (ikusi 3.6 grafikoa).

Gainera, kontuan izan behar da salmenten berrindartzea barne-eskariaren eskutik etorri dela, nahiz eta beste autonomia-erkidego batzuetako egoiliarrek egin erosketetan beherakada batez bestekoaz gorakoa izan. 2013ko eskarian atal horrek izandako datu onarekin konparatzearen ondorio izan daiteke hori. Gainera, euskal merkatuan atzerriko eskariak duen indar txikia ere aipatu behar da hemen, Espainian oso dinamikoa den bitartean: 2014an, erosketa guztien % 16,7 atzerriko herritarrenak izan ziren Espainian; aldiz, Euskadin, % 2,3ko pisua izan zuten.


Lurraldeko ikuspegian, eta salmentak hiruretan handitu baziren ere, **bilakaera onena Gipuzkoak eta Bizkaiak erakutsi zuten**, bi kasuetan % 35 inguruko hazkundera izan baitzituzten. Araban, salmenten gorakada askoz ere neurritsuagoa izan zen: % 4,4 urte artean.

Euskadiren kasuan, 2014an eskaria suspertzeak ez zuen islarik izan etxebizitzaren prezioa igotzean edota erorikoa moteltzean. Alderantziz, prezioen zuzenketa zorrotz egin zen apur bat urtean zehar: 2013an, urte arteko batez besteko beherakada % 0,7koa izan zen, eta 2014an, berriz, % 2,8koa. Hiruhilekoko dinamikak beherakada handiagoa erakusten du urtearen lehen zatian, eta motelago ageri da bigarrenean. Probintzika, bi jokabide ageri dira 2014an: alde batetik, prezioei ia aldaketarik gabe eutsi zitzaizkien Gipuzkoan baina, Araban nahiz Bizkaian, zuzenketa % 4,5 ingurukoa izan zen. Urteko lehen hiruhileko datuek aurreko hiruhilekoaren antzeko jaitziera erakusten dute etxebizitza prezioetan, urteartean % 1,5 ingurukoa, Espainiako batez besteko egonkortzearen gaintik (urteartean -% 0,1).

Azkenik, **eraikuntza-jarduerak hazteko joera erakutsi zuen 2014ko lehen hiru hiruhilekoetan**, eta azkena izan zen negatiboa, Sustapen Ministerioak etxebizitza berrien eraikuntzarako bisatuz emandako datuen arabera. **Ondo ondo sei urtetan atzera egin ondoren**, jarduera % 2,0 hazi zen 2013koarekiko (aurreko bi urteetan, batez beste % -26 egin zuen behera urtez urteko kopuruetan), eta bat dator hori Espainian batez beste gertatu denarekin (ikusi 3.7 grafikoa). Probintziaz probintzia, alde nabarmenak daude. Datuek argi erakusten dute 2014an Euskadiko bisatuen hazkundera **Bizkaian jarduerak izandako bilakaera onari zor zaiola esklusiboki**, baimenak % 23 hazi baitziren 2013ko datuekiko. Bai Araban eta bai Gipuzkoan, bisatuen sinadurak % 18 inguru jaitzi ziren (urte arteko datuak). 2015eko lehen hiruhilekoko zifrak hobeak dira aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bisatuen sinadurari dagokionez, nahiz eta 1H14an jasotako azpitik kokatzen diren apur bat.

3.6 grafikoa


Euskadi: etxebizitzaren salmenten urte arteko hazkundeari egindako ekarpena (p.p.-tan)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

3.7 grafikoa

Euskadi: etxebizitza berriak eraikitzeko bisatuak (UEEZ datuak)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta


Obra zibilak lizitazioa sustatu du urteko lehen hiruhilekoan

2014an lizitazio aurrekontuak gehien hazi ziren autonomia-erkidegoetan, hirugarrena izan zen Euskadi, Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera. Izan ere, obra publikoetara zuzendutako aurrekontua % 109 hazi zen iazko urtean, ondoz ondoko lau urtetan atzera egin ondoren; eta Espainian batez bestekoaren % 33 gainetik kokatzen da hazkunde hori. Goraldi hori **obra zibilen ataleko lizitazioak ugaltu zirelako** izan da, urte artean % 167 hazi baitira; aldiz, eraikuntzaren ataleko lizitazioa % 16 murriztu da. Lurralde lurralde aztertuz gero, nahiko argi ikusten da urtean iragarritako aurrekontuaren erdia (kopuru osoaren % 50,5) Bizkaiko obretara zuzendu zela. Hortik nahiko hurbil ibili zen Gipuzkoa ere, aurrekontuaren % 43 jaso baitu. Arabako lanak, berriz, ez ziren % 6,5etik pasatu 2014an. Tipologiari begiratzen badiogu, **trenbide eta errepideetako obrek hartu zuten 2014ko lizitazioaren aurrekontu handiena**. Horien atzetik datoz urbanizazio-obrak eta lan hidraulikoak.

2015eko lehen hiruhilekoko lizitazio datuek hobekuntza izan dela berresten dute, 2014ko garai berarekin alderatuta. Zehazki, **obra publiko berrietara zuzendutako aurrekontua % 74 hazi da** urte artean, eta bilakaera hori ez dator bat obra publikoek Espainian izandako atzeraldiarekin, (% -25) (ikusi 3.8 grafikoa). Berrero ere, bilakaera hobea erakutsi du obra zibilak (% 80 u/u) eraikuntzak berak baino (% 27). Aurrekontuek lurraldeka duten banaketari dagokionez, egoera 2014koaren oso antzekoa da: kasu honetan, Gipuzkoari dagokio ehuneko handiena (aurrekontu osoaren % 55); Bizkaia dator gero (% 40), eta Araba da azkena (% 5).

3.8 grafikoa


Herri-lanak lan motaren arabera: urte arteko hazkundeari egindako ekarpena, 1H15 (p.p.-tan)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

3.9 grafikoa

Euskadi: lizitazio aurrekontua eragileko (milioi eurotan)




Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

Erakunde finantzatzailerai dagokienez, **goburnu zentralaren aurrekontuan gorakada** bat izan dela nabarmentzen da: 2013an, 7 milioi euro izan ziren eta, iazko ekitaldian berriz, 440 milioi. Lurralde-erakundeek, aldiz, % 19 handitu zuten aurrekontua atal honetan 2014an, aurreko urtearekin alderatuta (ikus 3.9 grafikoa). Aurtengo lehen hiru hilabeteetan, Estatuaren aurrekontua nabarmen handitu dela ikusten da: 2014ko lehen hiruhilekoan, 1,4 milioikoa izan zen, eta, aldiz, 2015eko lehen hiruhilekoan, 268 milioikoa izan da. Lurralde-erakundeen aurrekontuek, azkenik, ia % 50eko murrizketa izan dute epe horretan bertan.

Inbertsioari dagokionez, **ekipo-ondasunen inportazio nominala suspertu egin da 2014an, 4,3 puntu portzentual hazi baita**; 2015eko lehen hiruhilekoan maximora iritsi dira, 2009az geroztik urteko lehen hiruhilekoetan jasotako datuei dagokienez, eta industria-klimaren indizea berreskuratzearekin bat dator hori (ikus 3.10 grafikoa). Industria-inbertsioari buruzko BBVA Inkestak eta Euskadiko **makineria eta ekipo-ondasunetako inbertsioei** buruz argitaratu diren datuek erakusten dute susperraldia indartzen ari dela (ikus 3.11 grafikoa): 2014an, urtez urteko hazkundea % 4tik gorakoa izan zen eta, 2015eko lehen hiruhilekoan, % 2,8tik gorakoa. Eraikuntzan, kapital finkoaren eraketa gordina (KFEG) motelago ari da suspertzen.

3.10 grafikoa


Euskadi: ekipo-ondasunen inportazioa (1H08=100) eta Industria Klimaren indizea



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en eta Industria Ministerioan oinarrituta

3.11 grafikoa

Euskadi: KFEG. Ekipo-ondasunak eta industria-inbertsioari buruzko BBVA Inkesta (% u/u eta erantzunen saldo garbia)



Iturria: BBVA Research, Eustaten eta BBVA oinarrituta

Kanpo-sektorea: esportazio ez-energetikoen eta Europako bilakaerak baldintzatuko du joera

Aurreko *Zertan den Euskadi*¹⁵ argitalpenean jaso zenaren ildotik, kanpo-sektorearen bilakaera erlatiboak baldintzatuko du hurrengo hiru hilabeteetan ere euskal ekonomiaren susperraldiaren abiadura. Eustat-en datuek argi erakutsi zuten: **kanpo-sektoreak euskal BPGren hazkundeari egindako ekarpena hutsala izan zen 2014an**, eta 2013koarekiko hiru hamarren uzurtu zen. **Ondasunen euskal esportazio errealek 2014an beren hazkundera bizkortu bazuten ere** (% 8,7 u/u, Espainiakoen gaineratik, % 3,5koak izan baitziren urte artean), inportazio errealek azpitik kokatu ziren (% 13,3 u/u). Gainera, **esportazio energetikoen bilakaerak** baldintzatu ditu, neurri handi batean, euskal esportazioen azken datuak; praktikan, 2014ko hazkunderaren erdia baino zertxobait gehiago dagokie, termino nominaletan (ikus 3.12 grafikoa). Automobilgintza sektoreak eta ekipo-ondasunenak berriz, hurrenez hurren, 2,5 eta 1,5 puntu portzentualeko ekarpena egin zieten, urtearen bigarren erdian suspertuta. Antzera, 2014ko inportazio nominalak 8,7 puntu portzentual hazi zirelarik, 7,1 puntu portzentualeko ekarpena egin zuen sektore energetikoak; gainerakoa produktu erdi-manufakturatuei eta ekipo-ondasunei dagokie.


Horrekin batera, Muskizko findegian instalazioak berrikusteko eta berritzeko 2015eko otsailetik martxora ekoizpena gelditu izanak baldintzatu egin ditu 2015. urteari dagozkion lehen datuak eta, beraz, **esportazio ez-energetikoak** aztertzea komeni da. Aurreko *Zertan den Euskadi* argitalpenean azaldu zenez, halako ahulaldi bat erakutsi zuten esportazio horiek 2014ko lehen seihilekoan. Datuek adierazten dutenez, **2014ko bigarren seihilekoan, termino nominaletan eta urtarokotasuna zuzenduta, euskal ekonomiak amaiera eman zion** azken urteetan Espainiako ekonomiarekiko metatutako **esportazioen diferentzialari**, automobilgintzak seihilekoan izandako % 24ko hazkundeari eta ekipo-ondasunen % 17ko hazkundeari esker. Hala ere, hazkunde hori eskaintzaren arloko faktoreei lotuta ageri da, hots, une jakin batean metatutako eskariak entregatu direlako, 2014ko lehen erdiko ahuleziaren ostean. Zehazki, itsasontziak entregatu dira irailean, trenbideetako materiala urrian eta salgaien garraiorako ibilgailuak bi hilabeteotan. Praktikan, euskal ekonomia **ahulezia-zantzuak** erakusten ariko litzateke berriro ere **esportazioen atalean**

15: Ikusi *Zertan den Euskadi*, 2014, hemen: <https://www.bbva-research.com/public-compuesta/situacion-pais-vasco-segundo-semester-2014>

2015eko lehen sei hilekoan, hiruhilekoetan ekipo-ondasunek % 12ko beheraldia, automobilgintzak % 9koa eta erdi-manufakturatuek % 6koa izan ondoren (ikusi 3.13 grafikoa).

3.12 grafikoa


Ondasunen esportazioa, sektoreka (u/u ekarpena, nominala)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.13 grafikoa

Esportazio ez-energetikoak (1H11=100)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


Sektoreka, euskal esportazioen pisu erlatiboak behera egin du erdi-manufakturatuetan (-4 p.p.), kontsumo-ondasun iraunkorretan (-1 p.p.) eta ekipo-ondasunetan (-1 p.p.); eta, aldiz, beren pisu erlatiboa indartu egin dute automobilgintzak (2 p.p.) eta, bereziki, produktu energetikoeak (4 p.p.) (ikusi 3.14 grafikoa), nahiz eta sektore tradizionalak susperraldi garrantzitsua izan 2014ko bigarren sei hilekoan. Dena den, **produktu erdi-manufakturatuek, ekipo-ondasunek eta automobilgintzaren sektoreak euskal esportazioen % 60 adierazten dute**, eta, beraz, esportazioen susperraldia batez ere hiru sektore horietan gertatzen denaren mende egongo da. Zehazki, itsasontzien salmentak haz daitezke, tax-lease eta Europako agintaritzarekin¹⁶ izan diren arazoei irtenbidea eman ondoren.

Azken urteotako euskal esportazioak eta Espainiakoak beren helmugen arabera aztertuz gero, ikusten da hasieran bazela halako alde bat bien artean, baina gero zuzendu egin dela hori: euskal esportazioetan, Asiaren pisu erlatiboa nabarmen handitu zen 2008tik aurrera, eta Espainian baino lehenago eta gehiago, gainera (euskal esportazioen % 10 gainditu zuen 2009an eta 2010ean); EB-28ra egindako esportazioen pisu erlatiboaren kaltetan gertatu zen hori (2009an, % 61eko minimoa izan zuen). Hala ere, alde hori zuzendu egin zen gerora, eta, bai 2013an eta bai **2014an, Asiara nahiz EB-28ra zuzendutako euskal eta espainiar esportazioen pisu erlatiboak bat etorri ziren ia**, oso antzeko zifretara iritsi baitziren eta goranzko joera erakutsi baitzuten bi kasuetan (ikusi 3.15 grafikoa).

16: Espainiak onartutako tax lease sistema dela-eta Holandako ontziolek aurkeztutako errekurtsua baztertu zuen 2014ko abenduan Luxenburgoko Auzitegiak; itsasontziei aplika dakizkiekeen aktiboen finantzaketan aurretzako amortizazioa egiteko aukera ematen du sistema horrek. Aurreko sistema salatu egin zuten, eta zenbait itsasontziren eraikuntzarako laguntza gisa zehaztu zena 2013an berreskuratzerara behartu zituzten; horrek halako ziurgabetasun falta bat sorrarazi zuen esparru juridikoan, espainiar ontziolek egindako eskaintzei zegokienez.

3.14 grafikoa


Euskadi eta Espainia: aldakuntza ondasunen esportazio nominalari egindako sektorekako ekarpenetan, 2010-2014 (% u/u)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.15 grafikoa

EB-28k eta Asiak esportazioetan duten pisu erlatiboa (%)




Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Helmugako herrialdeen araberako azterketa zehatz bat eginez gero, **2014ko datu onak bi ñabardura nagusi dituzte**. Alde batetik, **gorabidean diren herrialdeetan bitariko seinaleak sumatu dira**: hazkunde garrantzitsuak izan dituzte Aljeriak, Singapurrek eta Txinak (3 puntu portzentualeko ekarpena egin diote osotara hazkundeari), baina % 14ko beheraldia izan dute Turkian, eta % 7koa Brasilen eta Mexikon (0,5 puntu portzentual kenduz hazkundeari). Bestetik, **Frantziako merkatuaren ahulezia** nabarmendu da, 2014an hazi ez den merkatu tradizional bakarra horixe izan baita (% 0,8 u/u), nahiz eta euskal produktuen merkatu nagusi izaten jarraitzen duen (esportazioen % 16 jaso zuen 2014an). Krisi garaian, merkatu indartsu gisa Herbehereak eta Alemania nabarmendu dira Eurogunean, eta AEB, Erresuma Batua eta, neurri txikiagoan, Suedia handik kanpo (ikusi 3.16 grafikoa).

2015eko lehen hiruhilekoko datuak eskutan, **azken urteotako egonkortasun bera erakutsi du balantza komertzialaren bilakaerak** urte artean eta euro nominaletan, bi arrazoigatik: alde batetik, 2015eko lehen hiruhilekoan esportazioek behera egin badute ere, 2014ko lehen hiruhilekoa ere txarra izan zen esportazioetan; eta, bestetik, % 33ko beheraldia izan da inportazio energetiko nominaletan, batez ere urtarril eta otsailan, findegia gelditzearen harira. Aldeko haizeek esportazioei bultzatzen dieten neurrian, hobera egin dezakete kontuek hurrengo hiruhilekoetan (ikusi 3.17 grafikoa).

3.16 grafikoa


Esportazioen hazkundera 2014an vs 2008tik 2014ra hazkunderari egindako ekarpenak (bolaren neurria: esportazio nominalen pisua 2014an)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

3.17 grafikoa

Euskadi: ondasunen balantza komertzialaren saldoa (X-M, mila €)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Hobera egin du turismoak, espainiarren nahiz atzerritarren bisitei esker


Espainiako ekonomiaren susperraldia lagun, **Euskadiko turismo-sektorearen jarduerak hazten jarraitu du 2014an**. Espainian baino erritmo biziagoan hazi da gainera, bai ostatu-gauei dagokienez eta bai bidaiarien kopuruari dagokionez (ikusi 3.18 grafikoa). Lehen hiruhilekoari buruz eskura ditugun datuak oinarri hartuta, hobekuntza horri eutsi egin zaio gau-ostatuetan (% 1,9, h/h), baina bidaiarien kopuruan (estatukoak nahiz atzerrikoak) halako geldialdi bat izan da (% -0,1% h/h).

Estatuko turismoa da segmentu nagusia Euskadiko turismoaren barnean: gau-ostatuen % 62 biltzen du, eta bidaiarien % 55. Espainiaren perspektiba ekonomikoetan hobera egiteak ekarri du emaitzarik: estatuko bidaiarien kopuruan urteko hazkundera txikiagoa izan bada ere (% 2,8 u/u, eta Espainian, berriz, % 4,7 u/u), gau-ostatuetan hazkunde handiagoa izan du (% 4,7 u/u Euskadin, eta % 3,3 u/u Espainian).

Autonomia-erkidegoei dagokienez, Galiziatik datozen bisitarien hazkundera nabarmendu da (% 12 u/u, eta gau-ostatuetan % 4) eta Andaluzia (% 9,5 u/u) eta Madril ere (% 3,7 u/u) nabarmendu dira, bakoitzak 0,7 puntu portzentualeko ekarpena egin duelako; Euskadiko barne-merkatuaren ekarpena ere azpimarratu behar da, 0,9 puntu portzentualeko ekarpena egin baitu, % 4,3 hazita. Katalanen gau-ostatuen, berriz, % 0,2 (u/u) murriztu ziren, eta gau-ostatuen % 15,5 dagozkie (ikusi 3.19 grafikoa). Atzerritarren turismoa ere hazi egin da, bai bidaiariei dagokienez (% 1,3% u/u, eta Espainian, berriz, % 4,5) eta bai gau-ostatuei dagokienez (% 3,6); frantziar bidaiariek gora egin dute (% 4), eta horrek konpentsatu du alemaniar bidaiarien beharaldia (% -5). Bidaiari bakoitzak, batez beste, 1,9 gau egiten ditu, eta bi egunetik gorako batez besteko egonaldiak soilik uztailetik irailera gainditzen dira.

3.18 grafikoa


Euskadi eta Espainia: bidaiariak (mar. 11=100; UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.19 grafikoa

Euskadi: ostatu-gauen hazkundera jatorrizko erkidegoen arabera, eta hazkundeari egindako ekarpena (bolaren neurria: ostatu-gauen pisua 2014an)



Iturria: BBVA Research, Eustaten oinarrituta


Hobekuntza-zantzuak Euskadiko lan-merkatuan

2013ko bigarren sei hilekoan, ordura arteko joera negatiboa zuzentzen hasi zen Euskadiko lan-merkatua, eta suspertu egin da 2014an, Espainian baino erritmo motelagoan bada ere. Behetik gora egin zen urtean zehar, eta Gizarte Segurantzako afiliatuetan % 0,3ko hazkunderarekin amaitu zuen urtea (% 1,6 Espainian); batez beste, 3.000 afiliatu gehiago izan dira 2013ko kopuruarekin alderatuta, eta urteko balantze positiboa adierazten du lehen aldiz 2008tik. 2015eko datuetatik ondoriozta daitekeenez, **2015eko bigarren hiruhilekoan hazkunde positiboa izan dezake**, urtarokotasuna zuzenduta, **eta hiruhileko hazkunde positiboa duen segidako bosgarren hiruhilekoa litzateke, beraz** (ikusi 3.20 grafikoa).

Bigarren sei hilekoko afiliazioa sektorekako ekarpenaren arabera aztertzen badugu, alde handienak zerbitzu sektorearen barruan ikusten dira, nahiz enpleguaren zatirik handiena eurei dagokien bi kasuetan: Euskadin, **enpleguan ekarpen handiena izan duten sektoreak osasun-jarduerak, administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak izan dira, hezkuntzarekin batera, eta 0,2 puntu portzentualeko ekarpena egin du horietako bakoitzak**. Espainiarekin alderatzean (2014ko bigarren sei hilekoan, % +1,4ko hazkundera, eta, aldiz, Euskadin, % 0,8koa), manufakturen sektoreko enpleguak Euskadin izandako murrizketak azaltzen du 0,2 puntu portzentualeko diferentziala; eta ostalaritzan eta merkataritzan izandako hazkunde txikiagoek azalduko lukete 0,1na puntu portzentualeko aldea, kasu bakoitzean. Argitalpen honen itxierako unean eskura ditugun datuak abiapuntutzat hartuta, esan behar dugu afiliazioak Euskadin **gora egiten jarraitu duela 2015eko lehen hiruhilekoan**, urtarokotasuna zuzendu ondoren, **eta industriaren hazkundeari zor zaio hori batik bat**.


Seinale horiek bat datoz Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) azken urtean enpleguaren atalean erakutsitako pixkanakako aurrerabidearekin. Urteko lehen hiruhilekoan, zehazki, enpleguaren hazkundera (BAI) batez ere industriako enpleguak hiruhilekoen artean izan duen % 1,1eko hazkundeari zor zaio (ikusi 3.21 grafikoa).

3.20 grafikoa
Gizarte Segurantzako afiliazioa (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INSSn oinarrituta

3.21 grafikoa
Euskadi: enpleguaren bilakaera eta hazkundeari egindako ekarpena sektoreka, BAI/EPA (h/h, UEEZ)




Iturria: BBVA Research, INSSn oinarrituta

Doikuntza garai luze baten ostean, soldatadunen kopuru osoa hazi egin da berriro ere 2014an, sektore pribatuan soldatadunak batez beste % 1 hazi baitira. laz soldatadun publikoen kopuruan % 2,5eko murrizketa izan arren, **enplegu publikoa 2007ko urte amaierako maila berean kokatu da ia** (ikusi 3.22 grafikoa).

Espainian, langabezia tasa 2 puntu portzentual jaitsi zen 2014an, eta, aldiz, Euskadin ez zen hamarren batzuk baino jaitsi; bai Euskadin eta bai Espainian aktiboak urtean batez beste % 1 inguru murriztuta gertatu da hori (ikusi 3.23 grafikoa). Egiaz, Gizarte Segurantzako afiliazioak erakusten duenaren kontrara, Biztanleria Aktiboaren Inkestak enpleguari buruz ematen dituen datuek batez beste landunen kopurua 2014an urtea artean % 1 jaitsi zela erakusten dute (8.000 landun); eta 2015eko lehen hiruhilekora arte itxaron behar izan da urte artean % 2 inguruko hazkundea ikusteko. Hazkunde hori ez da aski oraindik eskualdean lan-merkatuak dituen desorekak zuzentzeko, enpleguak 2012ko mailaz behera jarraitzen baitu.

3.22 grafikoa


Soldatadun publiko eta pribatuen bilakaera Euskadin (4H2007 = 100)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.23 grafikoa

Euskadi eta Espainia: langabezia-tasa (%)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Aurrera egin behar du Euskadik langabeen enplegarritasunean

Euskadin, lan-merkatuak baditu halako berezitasun batzuk, eta, krisi garaian, areagotu egin dira horietako batzuk, eta, beste batzuk, aldiz, arindu. Lehen ere adierazi dugunez, berezitasun horien eraginez, Euskadi eta Espainia ez dira atzeralditik modu berean irtengo. Horregatik, interesgarria izan daiteke eskualdeko lan-merkatuaren definizio-ezaugarri diren elementu horietan apur bat gehixeago sakontzea, eta, bereziki, susperraldia desberdin zerk egiten duen ikustea. Duela gutxi, Biztanleria Aktiboaren Fluxuei buruzko Estatistika erkidegoz erkidego xehetasunez argitaratzen hasi zen Estatistikako Institutu Nazionala (INE). 2005eko bigarren hiruhilekotik 2015eko lehen hiruhilekora argitaratu diren serie horiek, hiruhilekoz hiruhileko, autonomia-erkidego bakoitzean lan-merkatuan egoera batetik bestera izan diren trantsizioen berri eman dute.

3.1 koadroak Euskadin eta Espainian izan diren emaitza nagusiak erakusten ditu, hiru aldi bereziz: krisia etorri aurretik enplegua hazi zen azken hiruhilekora arteko hedapen-aldia (2H05-3H08), enplegua behera erori zen aldia (4H08-1H14), eta enplegua suspertzen hasi zen lehen hiruhilekotik gaur egunera arteko aldia (2H14-1H15). Honako puntu hauek laburbiltzen dituzte landunen ataleko emaitza nagusiak:

- 1.a) **Hurrengo hiruhilekoan enpleguari eusteko probabilitatea handiagoa da Euskadin Espainian baino, bai krisi aurreko garaian, bai krisian eta bai krisi ostean.** Praktikan, probabilitate hori areagotu egin zen krisi garaian, Espainiakoarekiko 2 puntu portzentual gorago kokatuz; eta, orain, eutsi egin zaio alde horri.
- 1.b) Hala ere, **aurreko hiruhilekoan langabe dagoen euskal herritar batek aukera txikiagoa du enplegua aurkitzeko, aztergai hartu diren hiru aldietan;** gainera, krisi garaian areagotu egin da alde hori: Espainiakoarekin alderatuta, -2 puntu portzentualetan kokatzen da, eta orain ere maila bertsuan jarraitzen du..
- 1.c) Hirugarrenik, **aurreko hiruhilekoan ez-aktiboen artean kokatutako batentzat lana aurkitzeko probabilitatea txikiagoa da Euskadin Espainian baino, bai hedapen garaian eta bai krisian, nahiz eta alde hori murriztu egin zen krisian eta murriztu egin den orain;** izan ere, trantsizio horretarako probabilitatea murriztu egin da bi eremu geografikoetan.

Gainera, langabeen arloko emaitzak horrela laburbil daitezke:

- 2.a) **Aurreko hiruhilekoan landunen atalean zegoen batentzat, langabeen atalera igartzeko probabilitatea txikiagoa zen Euskadin** Espainian baino hedapen garaian (-2,1 p.p.), eta txikiagoa da berriro krisitik irteteko unean ere (-1,5 p.p.); baina, krisialdian, datuak bihurtu egin ziren, eta Euskadin apur bat handiagoa zen probabilitate hori (+0,7 p.p.).
- 2.b) Bestalde, **aurreko hiruhilekoan langabe zegoen batentzat hurrengoan langabe jarraitzeko probabilitatea handiagoa zen Euskadin Espainian baino (2 p.p. handiagoa) krisi aurreko garaian; baina, krisialdian, aldatu egin zen joera hori (-2,8 p.p.), eta txikiagoa da azken urteko susperraldian (-1,5 p.p.).** Hala ere, enpleguaren hazkunde garaiarekin alderatuta, **handiagoa da probabilitate hori gaur egun bi eremu geografikoetan (25 p.p.-tik gorako aldea);** eta bai erkidegoan eta bai estatuan lan-merkatuan halako zurruntasun batzuk badaudela adierazten du horrek. Ezinbestekoa izango da, beraz, alderdi horiei aurre egitea, probabilitate horiek murriztu nahi badira.
- 2.c) Azkenik, landunen atalera igaro gabe aktibo bihurtzeko probabilitatea oso antzekoa zen Euskadin eta Espainian krisi aurretik; baina, krisi garaian eta egungo egoeran, bizitasun giro handiagoa nabarmendu da Euskadin Espainian baino (2,1 eta 3 p.p.), nahiz eta maila horiek garbi erakusten duten **oraindik ere oso altua dela etsipen giroa.**

3.1 koadroa

landunen eta langabeen ataletara sartzeko probabilitateak, aurreko hiruhilekoan bakoitzaren lan-egoeraren arabera (batez beste, UEEZ, %)

| Egungo egoera | Aurreko egoera | 2H05-3H08 | | 4H08-1H14 | | 2H14-1H15 | |
|---------------|----------------|-----------|----------|-----------|----------|-----------|----------|
| | | Euskadi | Espainia | Euskadi | Espainia | Euskadi | Espainia |
| Landuna | Landuna | 94,4 | 92,9 | 95,1 | 92,8 | 94,9 | 92,6 |
| | Langabea | 2,5 | 3,3 | 2,7 | 4,8 | 3,3 | 5,3 |
| | Ez aktiboa | 3,1 | 3,8 | 2,2 | 2,4 | 1,8 | 2,1 |
| Langabea | Landuna | 27,3 | 29,4 | 18,2 | 17,5 | 12,6 | 14,1 |
| | Langabea | 43,5 | 41,5 | 62,6 | 65,4 | 68,8 | 70,3 |
| | Ez aktiboa | 29,2 | 29,1 | 19,2 | 17,1 | 18,6 | 15,6 |

Iturria. BBVA Research, INEn oinarrituta


Hortaz, nahiko argiak dira fluxuen azterketaren emaitzak: badirudi **enpleguari eusteko aukerak zertxobait handiagoak direla Euskadin oro har Espainian baino; baina langabe edo ez aktibo egotetik landunen esparrura iragateko aukerak ere zertxobait txikiagoak dira.** Fluxuak langabeziaren ikuspegitik aztertuta ere, berretsi egiten da joera hori, aurreko hiruhilekoan landunen atalean egonik langabeziara igartzeko aukerak txikiagoak baitira Euskadin (krisi garaia salbuespen), eta, aurrez langabe egonez gero, berriz, langabeen atalean irauteko aukera antzekoa baita. Ildo horretatik, funtsezkoa da enplegu-politika aktiboetan autonomia-gobernuen jarduera-ahalmenaz baliatzea lan-merkatuaren arazoei irtenbidea lehenbailehen emateko: nola Euskadin hala Espainian, langabe guztien % 42k baino gehiagok bi urte edo gehiago daramatzaten langabe.

Zerbitzuak, susperraldiaren eragile

Eskaintzaren ikuspegitik eta lan-merkatuan ikusi denarekin bat etorruta, **2014an Euskadik izan zuen hazkundeak (% 1,2 vs Estatuko % 1,4ko batez bestekoa) zerbitzu pribatuek egindako puntu portzentual bateko ekarpena izan zuen euskarri, bai eta zerbitzu publikoen ia 2 hamarreneko ekarpena ere; aldiz, 2 hamarren kendu zizkion hazkundeari eraikuntzak.** Eskualdeak Espainiarekiko ageri duen diferentzial negatiboari dagokionez, hamarren bat dagokio industria-sektoreari, eta beste hamarren bat eraikuntzari (ikus 3.24 grafikoa).


Euskadiko industria-sektoreak oraindik ere nahiko dinamismo apala erakusten du, eta horixe adierazten du industria produkzioaren indizeak ere (ikusi 3.25 grafikoa): goranzko bilakaera du 2014ko lehen hiruhilekoan, baina batez beste % 0,2ko hiruhilekoko hazkundea baino ez urtarokotasuna zuzenduta, Espainian izandako geldialdiarekiko oso alde txikiarekin; bi kasuetan, krisi aurreko garaietatik oso urrun kokatzen dira. Azpisektoreei dagokienez, soilik energiaren eta ekipo-ondasunen atalak daude 2011ko lehen hiruhileko mailaren gainetik, nahiz eta guztietan ere halako hazkunde apal bat sumatzen den.

3.24 grafikoa
BPGren hazkundea 2014an, eskaintzaren atalean: Euskadi eta Espainia (%)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta


3.25 grafikoa
Euskadi eta Espainia: industria produkzioaren indizea (1H11=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta


Zerbitzu sektorearen adierazle partzial nagusiek ere bilakaera positiboa erakusten dute: zehazki, zerbitzu sektoreko jardueraren indizea % 4,2 (u/u) hazi zen batez beste 2014n, eta % 2,7 (u/u) Espainian; baina Euskadin 1,3ko erorikoa (h/h) izan zuen 2015eko lehen hiruhilekoan, urtarokotasun-datuak zuzenduta (ikusi 3.26 grafikoa). Azpisektoreen atalean, merkataritza, garraio eta ostalaritzaren ekarpen positiboak nabarmentzen dira (6 hamarren Euskadin), bai eta jarduera profesional zientifiko, tekniko eta administratiboak ere (2 hamarren).

3.26 grafikoa
Zerbitzu sektoreko jarduera-indizea (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

3.27 grafikoa
BPGren bilakaera, Euskadi eta Espainiako MICA ereduak (% h/h)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2015-2016rako agertokia: lau faktorek sustatuko dute Euskadiren hazkundera

Atal honen sarreran aurreratu dugunez, agertoki makroekonomikora gehitutako berrikuntzek eta 2014an barne-eskariak erakutsitako inertziak Euskadiko ekonomiaren hazkunde-aurreikuspenak gorantz berrikustea ekarri dute; horrez gain, **aurreikuspen epean hazkunde iraunkorra izango dela iragar daiteke. Zehazki, BPGren hazkundera % 2,7 ingurukoa izatea espero da 2015ean, eta % 3ra arte azkar daiteke 2016an.** Biurteko honetan 29 mila lanpostu inguru sortzea ekarriko luke erritmo horrek.

Kanpoko nahiz barneko elementuak izango dira jardueraren hedapenaren euskarriak. Petrolioaren prezioaren beherakadak, euroaren deprezioak, ekonomia globalaren azkartzeak –Europakoa, bereziki– eta barne-lehiakortasunaren irabaziek Euskadiko kanpo-sektorearen suspertzea bultzatuko dute. Halaber, moneta-politika hedakorrek eskaria handitzea sustatuko du. Espainian, oinarritzkoak hobetzeak, desoreken zuzenketak aurrera egiteak eta zerga-politikaren tonu aldaketak barne-eskariaren suspertze iraunkorra bultzatuko dute.

i) Petrolioaren prezioaren beherakadak hobetu egin du familiek eskura duten errenta, eta ekoizpen-kostuak murriztuko ditu

Uda amaieratik, petrolioaren prezioak beheranzko joerari eutsi dio, eta Brent upelaren prezioa 50 dolar ingurukoa zen txosten hau ixteko unean (ikusi 3.28 grafikoa). Merkatze horren arrazoiengatik zalantzak handiak diren arren, eskuragarri dugun informazioaren arabera, badirudi eskaintza-faktoreen ondorio dela nagusiki. Besteak beste, honako hauek aipatu behar dira: AEBn hidrokarburo ez konbentzionalak ekoiztea (*shale oil*); LPEEek ekoizpen-kuotak ez murrizteko hartutako erabakia (Saudi Arabiaren babesarekin, nagusiki), prezioetan presioa jasan arren; eta, azkenik, tentsio geopolitikoek ekoizpenaren gain duten eragin txikia, esate baterako, Libian. Euskadiko eta Espainiako ekonomien mendekotasun energetikoa handia dela kontuan hartuta, eskaintza-shocka denez, espero daiteke eragin garbi positiboa izango duela jardueraren gain; horrek familiek eskura duten errenta handituko duenez eta enpresen garraio- eta ekoizpen-kostuak murriztuko dituenaz, kontsumoa, inbertsioa eta merkataritza-fluxuak bultzatuko dira. Zehazki, **BBVA Research-en estimazioen arabera, petrolioaren prezioaren beherakadak 1,2 p.p.-tan susta dezake Euskadiko jarduera** (ikusi 2. errekoadroa).

ii) Moneta-politikak hedakor jarraituko du

Europako ekonomiaren suspertze ahula eta inflazio-tasa txikiak ikusita, EBZk irmo jokatu zuen berritua. Zehazki, erakunde horretako Gobernu Kontseiluak aktiboak erosteko programa hedatzea erabaki zuen urtarileko bileran¹⁷: Europako gobernuek, agentziek eta erakundeek jaulkitako balio publikoak txertatu ditu. Oro har, gutxienez 1,1 bilioi euroko likidezia-zitada ekarriko du programa horrek (60.000 milioi euroko erosketak hileroko) joan den martxotik 2016ko irailera bitartean, gutxienez (edo, EBZren ustez, inflazioak bere xedea lortzeko bidea berreskuratu duela erabaki arte, hots, % 2ren inguruko tasatik hurbil, baina horren azpitik)¹⁸. Neurri horiek, eta, horiekin batera, interes-tasa nagusia minimo historikoan eustea (% 0,05) eta epe luzean finantzatzeko eragiketa-programa (TLTRO), **moneta-politikako tresna egokiak dira inflazio baxuari aurka egiteko eta epe luzean interes-tasei maila baxuan eusteko** (% 2,1ean 2015-2016 biurtekoan Espainian, 2014an baino 50 p.p. gutxiago)¹⁹.

17: 2014ko bigarren hiruhilekotik indarrean dauden programak ere hartzen ditu barnean (CBPP eta ABSPP): aktiboaren babesa duten balioak (ABS da ingelesezko sigla) eta bermatutako bonuak erostea; gaur egun, gutxi gorabehera, 13.000 milioi euro dira hilean.

18: Zehaztasun gehiago izateko, ikusi BBVA-Research-en EBZren Behatokia, 2015eko urtarrilaren 22an argitaratutakoa. Hemen:

https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2015/01/Observatorio_BCE_01151.pdf


19: 4H14-ko Situación España aldizkari 3. errekoadroan, TLTRO eta horrelako ekintzek 0,2 eta 0,8 p.p. artean susta dezakete Espainiako BPGren hazkundera, baina epe laburrean soilik. Ikusi: https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2014/11/Situacion-Espana_4T14-web.pdf

Aurrekoak, eta Erreserba Federala azkenean 2015 amaiera aldera interes-tasa igotzen hasteak, euroaren depreziazio bidea luzatuko du, eta dolarrarekiko parekotasunaren inguruan kokatutako da, batez beste 2015ean. Hala, bada, **BBVA Research-en estimazioen arabera, 2014ko balioarekiko % 20ko depreziazio horrek 1 p.p. bultzatzen dezake Euskadiko ekonomia 2015ean**, esportatutako ondasun eta zerbitzuen prezio lehiakortasuna areagotuko baitu eta inportazioak ordezkatzeko prozesua sustatuko baita (ikusi 2. errekoadroa).

Are gehiago, **EBZk abian jarritako pizgarri guztiek eragin positiboa izan dezakete kreditu berria emateko eta eskari kaudimenduna handitzeko orduan**. Izan ere, eragiketa berrien hazkundera bateragarria izango litzateke saldo biziaren beharrezko gainzorgabetzearekin, irteera-fluxua (amortizazioak) sarrera-fluxua (eragiketa berriak) baino handiagoa bada.


Azkenik, aktiboak erosteko prozesuak egonkor eusten die finantza-tentsioen adierazleei; adierazle horiek lotura estua erakutsi dute iraganean MICA-BBVA ereduak Euskadirako estimatutako eskualde-jardueraren hazkunderarekin (ikusi 3.29 grafikoa). Hala ere, tresna horrek ez du kredituaren mutualizazio osoa barnehartzen, eta banku-zatiketa murrizteko prozesua motel dezake horrek.

3.28 grafikoa
Petrolioaren prezioen agertokia (Brent upeleko US\$)



Iturria: BBVA Research, Bloomberg-en oinarrituta

3.29 grafikoa
BBVAren Finantza Tentsioen Indizea (FTI), eta Euskadiko BPGren hazkundera (MICA-Euskadi)



Iturria: BBVA Research

iii) Kanpo-hazkundera dinamizatzen hasi da

Kanpo-sektoreari dagokionez, munduko ekonomiaren hazkundera, eta, zehazki, Europako ekonomien azkartzeak –2014an, Euskadiko esportazioen bi heren hartu zituzten ia– 2015-2016 biurtekoan eskaria sendoa izango dela adierazten dute. 2014. urtean, Alemaniak eta Herbehereek eurogunean erakutsitako jokabide onari edo hortik kanpo Suediak eta Erresuma Batuak izandakoari EAGLESen barneko herrialdeak gehi diezazkieke, Euskadiko esportazioen laurdena hartzen baitute. Kanbio-tasaren depreziazioa eta lehiakortasunaren eta prezioaren hobekuntza euskarri egokiak dira euskal salmentak euroguneetik kanpo suspertzeko; bestalde, **Europarako aurreikuspen hobek** –kontsumitzaileek konfiantza berreskuratu dute eta finantza-ziurgabetasuna murriztu da– **eurogunera zuzendutako esportazioak bultzatu beharko lituzkete, bereziki Frantziak azken garaian erakutsi duen hobekuntza-seinalea berresten bada**.

Horrek guztiak euskal esportazioak dinamiza ditzake automobilgintzaren edo ekipo-ondasunen sektoreetan, Euskadiko esportazioen erdiak hartzen dituztenetan. Horrez gain, badirudi turismoak erakutsitako jokaera onak bere horretan eutsiko diola. Bi faktore horiek hainbat elementuren babesa izango dute: epe erdian,

euroak balioa galduko du dibisa nagusiekiko, garraio-kostuak merkatu egingo dira –petrolioaren prezioen beherakadaren ondorioz–, eta Espainiako barne-eskariak hobera egingo du.

iv) Barne-eskaria azkartu egingo da

Hainbat faktore daude **eskualdeko barne-eskariaren susperraldiaren atzean, bai kontsumo pribatuari dagokionez, bai industria-inbertsioari dagokionez**; bat dator hori Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestan jasotakoarekin (ikusi 1. errekoadroa), **2014rako konfiantzaren hobekuntza eta 2015erako ikuspegi positiboa aurreikusten baitzuten**. Faktore horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: presio inflazionistatik ez izatea, interes-tasek historikoki izandako maila baxuenei eusteko itxaropena, konfiantza berreskuratu izana eta aurrezkien doikuntza, familiek eskura duten errenta erreala berreskuratu izana –enplegua sortzearekin, petrolioaren prezioaren jaitsierarekin eta PFEZen murrizketekin lotuta–, azken seihilekoan ekipo-ondasunen inportazioetan behatutako hazkundea (zehazki, % 9,9 u/u handitu dira 1H15en) eta enpresen, familien eta sektore publikoaren finantzaketa-baldintzak hobetu izana. Autoen matrikulazioek ere gora egin dezakete 2015eko lehen seihilekoan –% 3,5 h/h inguru, batez beste– urtarokotasuna zuzenduta (ikusi 3.1 grafikoa).

Horrez gain, zerga-politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak ez luke arazorik izan behar defizit-helburua betetzeko 2015ean, eta horrek ez luke baldintzatzaile handia izan behar ekonomiarako. Zentzu horretan, **aurrez egindako ahaleginak eta berrindartze ekonomikoak, gastu ez finantzieroa handitzea ahalbidetuko luke, euskal ekonomiari bultzada** gehigarria emanez. Bestalde, kontuan izan behar da interes-tasen jaitsierak ez duela apenas onura gehigarririk ekarriko, jada oso baxu daudelako (ikusi 3.30 grafikoa).

Higiezinaren sektorean, berriz, hainbat urtetako uzkuetzearen ondoren, **etxebizitza eskaria berrindartzea espero daiteke**, barne eskaria lagun. Horrenbestez, inbentario maila baxua medio, eraikuntza jardunak goranzko joerari eutsi beharko lioke, beti ere maila baxu batetik. Bestetik, prezioek egonkor jarraituko dute ekitaldi honetan. Obra publikoari dagokionez, eskualdean abiadura handiko trenarekin lotutako lanek aurrera jarraituko dute.

Laburbilduz, faktore horiek guztiek BPGren % 2,7ko igoera ekarriko dute 2015ean, eta % 3koa 2016an, eta 29 mila enplegu sortzea bultzatuko dute


Ekonomian espero den dinamismoaren ondorioz, lan-merkatua poliki-poliki suspertzen joango da, eta, sektore pribatuko okupazioa handitzen laguntzeaz gain, langabezia-tasak murrizten ere lagunduko du²⁰, zehazki, kanpo-sektoreak eta industriak toki nabarmenagoa hartuko dutelako.

Oro har, 2015-2016 biurtekoan, landunen kopurua urtero % 1,7 inguru handitzea espero da; hau da, 29 mila lanpostu inguru sortuko dira eskualdean, 2002an zegoen enplegu-mailara iritsiz, gutxi gorabehera; hala ere, 2008an lortutako enplegu-mailaren azpitik geldituko da, 100 mila enplegu gutxiagorekin (ikusi 3.31 grafikoa).

20: Espainiako lan-merkatua aldatzeko proposamen bat, enpleguaren sorrera azkartzen eta dualtasuna murrizten lagunduko lukeena, irakur daiteke 2015eko lehen hiruhilekoari dagokion Situación España aldizkariko 1. errekoadroan; hemen: https://www.bbvaesearch.com/wp-content/uploads/2015/02/Situacion-Espana_1T15-web_vf.pdf

3.30 grafikoa


AAEE: zor publikoa eta zorraren kostuaren tasa inplizitua



Iturria: BBVA Research, BdEn eta MINHAPen oinarrituta

3.31 grafikoa

Euskadi: landunak, BAI (milakotan)



(a): aurreikuspena

Iturria: BBVA Research, BAI/EPAn oinarrituta

Arriskuek hor jarraitzen dute

Kanpora begira, ziurgabetasun geopolitikoak, petrolioaren prezioaren beherakada handiak eta EBZren eta FEDen arteko moneta-politiken dibergentziak, horrek garatze bidean diren merkatuetan izan dezakeen eraginekin, **finantza-tentsioak eragin ditzakete**, eskualdeko BPGren bilakaeran isla negatiboa izan dezaketenak.

Europan, EBZk hartutako neurriek ondorio txar bat izan dezakete, hau da, **finantza-zatiketa murrizteko prozesua motel dezakete**, arriskuaren mutualizazio osoa kontuan hartu ez dutelako. Horrez gain, **hauteskunde-egutegi konplexuari egin behar dio aurre Europak**; Grezian ireki da jada prozesu hori, eta erreskatearen baldintzak berriz negoziatzeko prozesuak tentsioak eragin ditzake baita ere. Azkenik, **Espainiak hazkunde iraunkorra lortzeko erronkari egin behar dio aurre**. Jardueraren hobekuntzarekin batera, enplegu asko sortu behar dira, suspertzea gizarte osora irits dadin eta **bateragarria izan dadin kontu-korronte balantzan saldo positiboak lortzearekin**.


Euskadin, esportazioen suspertzeari iraunkor eusteko ahalmenak sortzen du ziurgabetasun handiena. Hala ere, merkataritza-bazkide nagusiak berreskuratzeak eta kanbio-tasa baxuak Euskadiko esportazioak orain arte baino indartsuago sustatzea espero da.

Dena den, lan-merkatuak azken garaian hobera egin duen arren, Euskadiko ekonomiak hainbat erronkari egin behar die aurre epe erdian. Europako eskualde aberatsenekin bat egiteko prozesua sendotzeko, beharrezkoa izango da **langabezia-tasa murriztea, jarduera-tasa handitzea²¹ (ikus argitalpen honetako 3. errekoadroa) eta erronka demografikoari aurre egitea**, lan egiteko adina duen biztanleria Espainiako batez bestekoaren azpitik baitago. Espainiako eskualdeetako batez bestekoarekin alderatuz gero kokapen erlatiboa ona den arren (ikus 3.32 grafikoa), enplegua handitu behar du, betiere, enpleguaren batez besteko produktibitatean duen abantaila murriztu gabe²², horixe baita gaur egungo errenta-mailaren oinarria.

21: 2015eko lehen hiruhilekoko Situación España aldizkari 2. errekoadroan ikus daitekeenez, Espainiako biztanlerian espero den zahartzeak zaildu egingo du jarduera-tasa suspertzea, lan-merkatuan parte hartzeko norbanakoen joerak edo ziklo ekonomikoak hobera egin arren.


22: 2015eko lehen hiruhilekoko Situación España aldizkari 3. errekoadroan, Espainiako manufaktura-sektoreko enpresek azken hiru hamarkadetan izandako produktibitatearen bilakaera eta faktore erabakigarriak aztertu dira.

3.32 grafikoa
Euskadi: egiturazko indarren radarra²³



Iturria: BBVA Research

3.33 grafikoa
Euskadi, Espainia eta EDB: BPGren hazkundera



(a): aurreikuspena
Iturria: BBVA Research

3.2 koadroa
BPGren hazkudean AA. EE.ko. (%)

| Autonomia Erkidegoa | 2011 | 2012 | 2013 | 2014(p) | 2015(p) |
|---------------------|------|------|------|---------|---------|
| Andaluzia | -0,7 | -2,8 | -1,1 | 1,3 | 2,8 |
| Aragoi | -1,0 | -3,8 | -0,7 | 1,7 | 3,0 |
| Asturias | -0,7 | -3,5 | -2,5 | 0,8 | 2,4 |
| Balearrak | 0,3 | -0,5 | -0,5 | 1,9 | 3,3 |
| Kanariak | -0,4 | -1,4 | -0,4 | 2,2 | 3,3 |
| Kantabria | -1,7 | -1,7 | -2,3 | 1,0 | 2,5 |
| Gaztela eta Leon | 0,2 | -3,1 | -1,8 | 1,4 | 2,7 |
| Gaztela Mantxa* | -0,5 | -4,1 | -0,9 | 1,2 | 2,9 |
| Katalunia | -1,6 | -1,9 | -1,2 | 1,4 | 3,2 |
| Extremadura | -0,9 | -3,5 | -1,0 | 2,2 | 3,3 |
| Galizia | -1,7 | -2,3 | -0,9 | 0,5 | 2,4 |
| Madril | 0,6 | -0,4 | -1,6 | 1,0 | 3,3 |
| Murtzia | -0,4 | -2,1 | -1,3 | 2,0 | 2,9 |
| Nafarroa | 0,6 | -2,7 | -1,1 | 2,0 | 3,1 |
| EAE* | -0,5 | -1,5 | -1,8 | 1,2 | 2,7 |
| Errioxa | -1,3 | -2,8 | -1,4 | 2,5 | 3,5 |
| Valentzia | -1,3 | -2,9 | -0,8 | 2,1 | 3,2 |
| España | -0,6 | -2,1 | -1,2 | 1,4 | 3,0 |

(p): aurreikuspena. Data: 2015eko maiatza
Iturria: BBVA Research eta INE

23 Eskualdeko maximoaren eta minimoaren arteko aldea neurtzen du, 1 eta 0 kopuruetan normalizatuta, hurrenez hurren.

1. Errekoadroa. Euskadiko jarduera ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta: 2015eko 1. hiruhilekoko emaitzak

Inkestari erantzun dioten gehienek arabera, **Euskadiko jarduera ekonomikoa bizkortu egin da 2015eko lehen hiruhilekoan**, aurrekoarekin alderatuta, eta bat dator hori argitalpen honetako 3. atalean adierazi denarekin; beraz, are gehiago bizkortu da 2013ko bigarren erdian hasi zen hedapen-bidea. Horrez gain, **jarduera ekonomikoari buruzko inkestaren²⁴ emaitzek erakusten dute jarduerak hobetzen jarraituko duela hurrengo hiruhilekoan ere** (ikusi R.1.1 grafikoa).

Eskura ditugun egoeraren adierazle partzialen ildotik, jarduera ekonomikoari buruzko inkestaren emaitzek diote jarduera apur bat hazi egin dela urtearen lehen hiruhilekoan, inkesta egin dutenen erdiaren ikuspegitik; beste erdiak, berriz, uste du egonkor iraun duela. **Bigarren hiruhilekoari begira**, ikuspegi baikorra marrazten dute gainera: **inkesta egin zaienen artean, hamarretik ia seik uste dute jarduera hazi egingo dela eskualdean**, eta hamarretik lauk, berriz, egonkor iraungo duela diote. Inkesta egin dutenen % 2k soilik uste du jarduera txikiagoa izango dela urtearen lehen erdiko bi hiruhilekoetan.

Ikuspegi sektorialetik, **esportazioek, eskari-zorroak, industria-ekoizpenak eta eraikuntza berrien atalak dinamismo handiagoa erakutsi dute inkestan**, eta, kasu guztietan, **hobekuntza bat ikusten da aurreko hiruhilekoarekiko**. Stock mailan, industria-inbertsioan eta industria-enpleguan ere hobekuntza bat ikusten da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, nahiz eta inkesta egin dutenen hiru laurdenek halako egonkortasun bat hautematen dute adierazle horietan.

Prezioetan izan ezik, **gainerako adierazle partzialek erantzunen saldo positibo eta gorakorrek²⁵ erakusten dituzte**. Bat dator hori oraingo agertokiarekin; izan ere, euroaren balio-galerak kanpo-eskaria sustatu badu ere (esportazioaren edo turismoaren bidetik), **barne-**

eskariak gero eta protagonismo handiagoa du jarduera berreskuratzeko bidean (ikusi R.1.2 grafikoa).

Lan-arloan, inkesta egin dutenen laurdena inguruk industriako enpleguak eta, bereziki, zerbitzuetakoak gora egin dutela ikusten du, eta sektorez sektoreko afiliazioen erregistroan hautematen ari garenarekin bat dator hori, hobekuntzak arinagoak izan arren eraikuntzaren arloko enpleguan. Hiruhilekoen arteko ikuspegitik, industria-enpleguaren gaineko ikuspegia hobea da eraikuntzako edo zerbitzuetako enpleguaren gainekoa baino; hala ere, inkestari erantzun diotenenek jokaera hobea ikusten dute industria-ekoizpenean edo inbertsioetan sektoreko enpleguan baino.


Laburtzeko, BBVA Inkestaren emaitzek iradokitzen dute Euskadiko jarduera ekonomikoak **hazten jarraitu duela 2015eko lehen sei hilekoan**. Ez dira alferrik inkesta egiten denetik lortutako emaitzarik baikorrenak. **la sektore guztiek lagundu dute horretan**, barne-eskariari eta esportazioei (ondasunen nahiz turismoaren atalekoak) esker, eraikuntza ere egonkortuz. 2015eko lehen hiruhilekoko bizkotzearen seinalea bat dator Euskadiko MICA BBVA adierazleak dioenarekin; eta eskualdeen ekonomiarako BBVA Research-ek egindako aurreikuspena indartu egiten du; 2015ean, BPGren % 2,7ko hazkundea aurreikusten da argitalpen horretan.

24: BBVA Inkesta hiru hilean behin egiten da, 2010eko 2. hiruhilekoaz geroztik, eskualdean BBVAren bulegoen sarean ari diren enplegatuen artean. Inkestaren funtzionamenduari buruz xehetasun gehiago jakiteko, ikusi: Situación España, "Recuadro 1, Encuesta BBVA de Actividad Económica. Una herramienta de seguimiento temprano del pulso de la economía." Situación España, 2014ko 2. hiruhilekoari buruz. Hemen: <https://www.bbva-research.com/public-compuesta/situacion-espana/>

25: Erantzun positiboak negatiboak kenduta dagokien ehunekoa.

R.1.1 grafikoa


Euskadi. Jarduera ekonomiari buruzko Inkestak eta hurrengo hiruhilekorako espektatibak



Iturria: BBVA Research

R.1.2 grafikoa

Euskadi. Jarduera ekonomikoari buruzko inkesta. Erantzunen saldoa. Hautatutako aldagaiak



Iturria: BBVA Research

R.1.1 koadroa

Euskadiko jarduera ekonomikoari buruzko laburpen-koadroa

| (erantzunen %) | 2015eko 1. hiruhilekoa | | | 2014ko 4. hiruhilekoa | | | 2014ko 1. hiruhilekoa | | |
|---------------------------------------|------------------------|---------|---------|-----------------------|---------|---------|-----------------------|---------|---------|
| | Handitu | Egonkor | Txikitu | Handitu | Egonkor | Txikitu | Handitu | Egonkor | Txikitu |
| Jarduera ekonomikoa | 49 | 51 | 1 | 21 | 77 | 3 | 20 | 72 | 8 |
| Hurrengo hiruhilekorako aurreikuspena | 58 | 40 | 2 | 48 | 49 | 3 | 33 | 61 | 6 |
| Industria-ekoizpena | 36 | 61 | 4 | 18 | 81 | 2 | 9 | 83 | 8 |
| Eskari-zorroa | 43 | 54 | 4 | 23 | 75 | 2 | 19 | 71 | 10 |
| Stock maila | 20 | 77 | 3 | 10 | 85 | 4 | 6 | 87 | 7 |
| Lehen sektoreko inbertsioa | 12 | 86 | 2 | 5 | 87 | 8 | 3 | 86 | 10 |
| Industriako inbertsioa | 23 | 73 | 4 | 12 | 86 | 2 | 6 | 85 | 9 |
| Zerbitzuetako inbertsioa | 33 | 64 | 3 | 27 | 68 | 5 | 17 | 71 | 11 |
| Eraikuntza berriak | 38 | 57 | 5 | 28 | 64 | 8 | 13 | 63 | 25 |
| Industriako enplegua | 25 | 72 | 3 | 16 | 78 | 6 | 7 | 74 | 19 |
| Zerbitzuetako enplegua | 29 | 67 | 4 | 28 | 68 | 5 | 11 | 72 | 17 |
| Eraikuntzako enplegua | 17 | 75 | 8 | 14 | 73 | 12 | 6 | 68 | 26 |
| Prezioak | 6 | 84 | 10 | 8 | 70 | 22 | 14 | 77 | 9 |
| Salmentak | 32 | 63 | 5 | 32 | 61 | 7 | 13 | 66 | 21 |
| Turismoa | 41 | 56 | 2 | 37 | 60 | 3 | 25 | 66 | 9 |
| Esportazioak | 34 | 63 | 3 | 21 | 74 | 5 | 26 | 68 | 6 |

(*)Muturreko erantzunen saldoa
Iturria: BBVA


2. Errekoadroa. Nolako sentsibilitatea du Euskadiko ekonomiak Europako zikloaren, kanbio-tasaren eta petrolioaren prezioaren aurrean? BBVA-RVAR ereduaren oinarritutako azterketa²³

Sarrera

2007. urtearen aurreko bi hamarkadetan, Euskadiko ekonomiak hazkunde iraunkorra izan zuen, urteko % 2,5etik gora, batez beste. Aldi horretan, **kanpoko hainbat gertaerak eragina izan zuten EAEko jardunean, hein handiagoan edo txikiagoan, eta eskualdeari berari zegozkion faktore idiosinkratikoek ere izan zuten zeresanik** (ikusi R.2.1 grafikoa).

R.2.1 grafikoa

Euskadi eta Espainia: BPGren urteko hazkundera (u/u, %)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Errekoadro honen helburua gertaera horietako batzuek hazkunderaren gainean izan duten eragina kuantifikatzea da, bai eta eskualdeetan ageri den heterogeneotasunari neurri batean azalpen bat ematen laguntzea ere. Horretarako, tresna estatistikoak behar dira, Europako eta Espainiako eskualdeen arteko erlazio ekonomikoaren ereduaz aztertzen laguntzeko. Horregatik, **eskualde askotan oinarritutako tresna makroekonomiko berri bat dakar lan honek (BBVA-RVAR)**, eta, besteak beste, estatuan, European edo maila globalean sortutako *shocken* eraginak eta transmisioa zenbatzeko bidea ematen du tresna horrek, bai eta autonomia-erkidegoen barnean sortutakoak ere; horretarako, eskualdeen arteko

osagai espaziala eta komertziala erabiltzen du.

Aurrez adierazitako hori guztia garrantzitsua da oso gaur egungo testuinguruan, kanpoko zenbait faktoreren eragina ari baita jasaten eskualdeko agertoki ekonomikoa. Alde batetik, Europako ekonomiaren ziurgabetasunarekin lotutako arriskuak ez dira gauzatzen ari, eta horrek BPGren goranzko berrikuspena ekarri du EDBn, Euskadiko ekonomiaren bazkide nagusian. Bestetik, kanbio-tasaren deprezioak eta uda amaieratik gertatutako petrolioaren prezioaren jaitsierak suspertzea bultzatu dute.

Errekoadro honetan aurkeztutako emaitzek adierazten dutenez, epe laburrean, batetik, **Europako BPGn 0,3 puntuko hazkunde osagarria izateak Euskadiko BPG 0,3 p.p. handitzea ekarriko luke**, EDBko herrialdeen arteko harreman estuaren ondorioz. Bestetik, **euroaren eta dolarraren arteko kanbio-tasan % 20ko deprezioa izateak puntu portzentual bateko ekarpena egin diezaioke eskualdeko BPGri**; esportatutako ondasunen eta zerbitzuen lehiakortasuna eta prezioa handituko lituzke horrek, eta inportazioak ordezkatzeko prozesua sustatuko luke. Azkenik, **petrolioaren prezioa % 40 jaisteak EAEko BPG 1,2 p.p. inguru handituko luke 2015ean**, energia- eta garraio-kostuak murriztu egingo lirakeelako. Elastizitate horiek agregatu nazionalerako egindako estimazioen ildotik doaz, hurrenez hurren, 0,3 p.p.-ko, 0,75 p.p.-ko eta 1,0 p.p.-ko eragina izango bailukete. *Shockek* batez beste autonomia-erkidegoetan izango duten eraginean heterogeneotasun apur bat txerta dezake irekitasun komertzialaren mailak. Zehazki, Euskadiren irekiera ekonomikoa eta komertziala batez bestekoa baino handixeagoa da, eta agregatu nazionalerako esperotakoak baino eragin handixeagoak gerta litezke.

Hurrengo atalok, erabilitako metodologiari buruzko laburpen txiki bat egiten dute, ondoren emaitzak

26: Azterketa zehatzagoa eskuratu nahi izanez gero, ikusi Situación España, 2014ko laugarren hiruhilekoari dagokiona. Hemen: https://www.bbva-research.com/?capitulo=recuadro-1-que-cc-aa-son-mas-sensibles-al-ciclo-europeo&post_parent=50878

aurkezteko. Azken zatian, askotariko *shock*ei emandako erantzunetan sumatu den heterogeneotasunaren atzean leudekeen zenbait faktoreri buruzko proposamenak bildu dira.

Metodologia eta literaturarekiko erlazioa

Euskadiko eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko elkarren mendekotasuna aztertzeko erabilitako ereduan, maila globalean eredu makroekonometrikoen estimazio-metodologian egindako azken aurrerapenak **baliatu dira**; zehazki, Bektore Autorregresibo Globalei (ingelesezko sigla, GVAR) lotutako garapen metodologikoak. Bektore horiek Pesaran-ek, Schuermann eta Weiner-ek (2004), eta Dees, Di Mauro, Pesaran eta Smith-ek (2005) ekarri zituzten. Hain zuzen, BBVA-RVAR eredu Eskualde Anitzetako Bektore Autorregresibo eredu bat da, hiru hilean behingoa²⁷ eta, 1980tik 2013ra bitarteko lagina hartuta, BPGren hazkundera eta Espainiako autonomia-erkidego bakoitzaren eta EBren arteko kanbio-tasa errearen aldakuntza erlazionatzen ditu, alde biko merkataritza-harremenez baliatuta²⁸. Banakako ereduak gerora ahokutzen dira, modu finko eta kohesiboan, aldi berean aldagai guztietarako pronostikoak eta simulazioak egiteko. Azkenik, eskualdeko emaitzak bateratuz, Espainiako ekonomiak osotara duen interakzioa ateratzen da²⁹.

Literatura ekonomikoan, askotariko informazioa aurki daiteke ziklo ekonomiko globalen eta nazionalen arteko transmisioen azterketarekin lotuta³⁰, eta Ameriketako Estatu Batuetako (AEB)

ekonomiak betetzen duen rola nabarmentzen da, munduko gainerako tokietara *shock*ak esportatzen dituen eragile nagusi gisa. Dena den, **shock horiek hainbat eskualdetako ekonomietara** (edo nazio barnera) **nola transmititzen diren aztertzen duen lan gutxi dago oraindik**. Beraz, eta orain arteko literatura kontuan hartuta, lan honek hainbat alderditan egiten du ekarpena.

Lehenik, **eredu autorregresibo globalak eskualdeko ekonomiaren azterketara egokitzea proposatzen da**, Vansteenkiste-k (2006) AEBko higiezin merkatutarako eta Ramajok eta bestek (2013) Espainiako kapital-fluxuetarako planteatutakoaren ildotik. Hala ere, honako ariketa hau aldagai makroekonomiko nagusietan oinarritzen da (jarduna eta prezioak), Pesaran, Schuermann eta Weiner-en (2004) eta Pesaran eta besteren (2005) eskemari eutsiz eta eskualdeen ikuspegira egokituta.

Lan honen bigarren ezaugarri berezia **eskualde arteko ondasun-merkataritzako matrizeen erabilera da**³¹, oinarritzat horixe hartuta gainidentifikazioaren arazoari irtenbidea emateko; izan ere, eredu hauetako estimazioek arazo horixe planteatzen dute Vansteenkiste-ren (2006) lanetako matrize espazialen erabilerarekiko eta Ramajo eta besteren (2013) lanean eurek landutakoaren aurrean. Baxter eta Kouparitsas-en (2004) ildotik, ikusi da emaitzarik sendoenak alde biko merkataritzak eskaintzen dituela.

Hirugarrenik, **erantzun-bulkaden funtzioetan oinarritutako emaitzak lortzeko bidean sakondu da, eta pronostiko-ariketak txertatu**. Horietan lehena, *shock*aren ortogonalizazioaren ikuspegitik

27: Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen du eskualdeko BPG, 1980. urteaz geroztik. Eredu horren gaitasuna areagotzeko eta *shock*ak epe laburragoan hautemateko, serieak denboraren ikuspegitik gehiago bereiztea proposatu da, faktore dinamikoen eredu baten bitartez (DFM), Camacho eta Domenech-ek (2010) MICA-BBVA eredurako proposatutakoaren ildotik. Informazio zehatzagoa eskuratzeko, ikusi "MICA-BBVA: A Factor Model Of Economic and Financial Indicators for Short-term GDP Forecasting"; hemen: <https://www.bbva-research.com/en/publicaciones/mica-bbva-a-factor-model-of-economic-and-financial-indicators-for-short-term-gdp-forecasting/>

28: Hashen Pesaran, Til Schuermann eta Scott Weiner-ek (2004) proposatutako bektore autorregresibo globalen (GVAR) ereduaren erakuntzan onartutako metodologia honek irtenbide bat ematen dio *a priori* eredu hauek izaten duten "gainparametrizazioaren" arazoari, eta, aldi berean, hainbat aplikaziotan erabili ahal izateko esparru malgu bat eskaintzen du.

29: Azterketa zehatzago bat nahi izatera, ikusi: Cardoso-Lecourtois, Méndez-Marcano eta Ruiz-Sánchez (2014): "BBVA-RVAR: A Multi-Regional Vector Autoregressive Model for Spain" (argitaratzeke).

30: Ikusi honako hauek: Euro Area Policies: Spillover Report for the 2011 Article IV Consultation and Selected Issue, IMF Country Report No. 11/185; eta Menzie D Chinn (2013): Global spillovers and domestic monetary policy, BIS Working Papers, 436 zk.

31: Eskualde-mailako zerbitzuen esportazioen erregistrok ez dagoenez, erabilitako datuak ondasunen merkataritzari dagozkio, eta, horren ondorioz, estimazio txikiak egiteko arriskua izan daiteke zerbitzuen esportazioen pisua esanguratsua den eskualdeetan.

lor daiteke (OIF), edota orokortutako erantzun-bulkadaren funtzioen ikuspegitik (GIRF)³²; Koop eta besteek (1996) proposatu eta, gero, Pesaran eta Shin-ek (1998) VAR ereduertarako garatutakoaren ildotik. Bestalde, Espainiako edota Europako ekonomien askotariko agertokiak arabera baldintzatu daitezke (edo ez) pronostikoak, eta autonomia-erkidegoen esparruan arrisku-agertokiak lortzeko aukera izan daiteke, Doan, Litterman eta Sims-ek (1984)³³ proposatutako metodologiari jarraituz.

Emaitzak

Hainbat gertaeraren aurrean eskualdeko BPGn espero daitekeen bilakaera ebaluatzeko, BBVA-RVAR eredia erabiltzen du atal honek. OIRFetatik abiatuta, European jardueraren azelerazioak izan dezakeen eragina


eta euroaren deprezioak eta petrolioaren prezioak behera egiteak Euskadiko ekonomian izan dezaketena zenbatzen ahalegintzeko hiru ariketa aurkeztu dira, zehazki.

Lehenik, agertoki hipotetiko batek, hots, EDBn BPG espero daitekeena baino % 0,3 gehiago hazteak Espainiako jardura ekonomikoaren hazkundearen gainean izango lukeen urteko eragin metatua erakusten du R.2.2 grafikoa.

Europako testuinguruaren berrikuspen batekiko Euskadiko BPGk duen elastikotasuna 0,3 p.p. ingurukoa da, eta konfiantza-tartea (% 90ean) 0,05etik 0,5era doa. Agregatu nazionalerako espero denarekin bat dator emaitza, estimazioak 0,3 p.p. inguruko eragina adierazten baitu, eta konfiantza-tartea 0,06tik 0,5era doa.

R.2.2 grafikoa

BPGn izan dezakeen eragina, EDBn hazkunde ekonomikoaren % 0,3ko berrikuspenera egin osteko lau hiruhilekotan



Iturria: BBVA Research

Eskualdeen ikuspegitik, esportazioen dibertsifikazio geografikoak³⁴ azaltzen ditu, neurri batean, autonomia-erkidegoen arteko aldeak. Euskadiren kasuan, EDBren dependentsia komertziala agregatu nazionalen ikusitakoaren antzekoa da (ondasunen esportazioen % 49), eta horrek azalduko luke eragina ere batez beste Espainia osorako espero denaren antzekoa izatea (ikusi R.2.3 grafikoa).


32: Erantzun-bulkadaren funtzio orokortuen metodologia (GIRF), Koop eta besteek (1996) proposatutakoa, Sims-en (1980) erantzun-bulkada ortogonalizatuen funtzioen (OIRF) aurrean proposatutako alternatiba bat da. OIRF horiek erantzun-bulkadak shock ortogonalizatuen serie baten arabera zenbatzea eskatzen dute; aldiz, GIRFek shock gisa hartzen dituzte banakako erroreak, eta barnean hartzen dituzte beste shocken eraginak, horietan guztietan behatutako banaketa ortogonalizazio beharrik gabe erabiliz. Ildo horretatik, OIRFen kasuan gertatzen denaren aurka, GIRFak ez dira aldatzen aldagaien eta eskualdeen exogenotasunaren ordenan izan daitezkeen aldaketekin; hortaz, ereduaren ezaugarriak kontuan hartuta, esparru ideala dira Espainiako ekonomiaren *shock*ak osotasunean aztertzeko.

33: Doan, Litterman eta Sims-ek (1984) proposatutako metodologiak egiantz handieneko pronostiko puntuala lortzeko eskema bat eskaintzen digu, agertoki jakin bati lotuta.

34: Azterketa zehatzago bat nahiz izanez gero, ikusi 3. errekoadroa, Situación España 2014ko lehen hiruhilekoari dagokiona. Hemen: <https://www.bbva.com/publicaciones/situacion-espana-primero-trimestre-2014/>

R.2.3 grafikoa

EDBra zuzendutako esportazioen pisua eta BPGn izan dezakeen eragina, EDBn hazkunde ekonomikoaren % 0,3ko berrikuspena egin osteko lau hiruhilekotan




Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

Bigarrenik, **dolarraren aurrean euroak % 20ko deprezazioa izateak** jarduera ekonomikoan izango lukeen eragina erakusten du R.2.4 grafikoa. Agertoki horrek **Euskadiko BPG 1 p.p. inguru susta dezake 2015ean**, 0,5etik 1,6ra doan konfiantza-tartearekin (% 90ean).

R.2.4 grafikoa

BPGren gainean izan dezakeen eragina, €/€ kanbio-tasan % 20ko deprezazioa izan osteko lau hiruhilekotan




Iturria: BBVA Research

Kanbio-tasaren deprezazioak tokiko produktuen prezio-lehiakortasunean irabaziak eragin ahala (esportazioak sustatuz eta inportatutako produktuen erakarmena murriztuz), emaitza horiek, zuzen-zuzenean, eskualdeen irekitasun komertzialarekin lotuta egongo liriteke³⁵ (ikusi R.2.5 grafikoa). Horrela, Euskadiko kasuan, Espainiako batez bestekoarekiko 10 p.p.-tik gorako irekitze komertzialak azalduko luke eragina agregatu nazionalerako estimatutakoaren gainekoa izatea (0,75 p.p.).

R.2.5 grafikoa

Irekitze komertziala eta lau hiruhilekotan BPGn izan dezakeen eragina, €/€ kanbio-tasan % 20ko deprezazioa izan ostean




Iturria: BBVA Research, Datacomex-en eta INE-n oinarrituta

Azkenik, **petrolioaren prezioaren % 40ko jaitsierak (50 dolar Brent upeleko) jarduera ekonomikoan izango duen eragina kalkulatu da. Batez besteko eragina 1,2 p.p. ingurukoa izan daiteke 2015ean**, Espainiako ekonomia osorako espero denaren gaintik apur bat.

35: Irekitasun komertziala ondasunen esportazioen eta inportazioen baturaren eta eskualdeko BPGren arteko ratiotzat hartu behar da.

R.2.6 grafikoa

BPGren gainean izan dezakeen eragina, petrolioaren prezioak % 40ko jaitsiera izan osteko lau hiruhilekotan




Iturria: BBVA Research

Petrolioaren prezioaren merkatze horrek bultzatu egingo ditu ekoizpen- edo garraio-kostu altuak dituzten sektoreak, hala nola esportazioak, bereziki industrian edo turismoan. Beraz, sektore horien espezializazio handiagoak joera positiboa adierazten du eskualde bakoitzeko aurreikuspenetan. Halaber, familiek garraioan beren diru-sarreraren ehuneko handiagoa gastatzen duten autonomia-erkidegoetarako ere onuragarria izango da (ikusi R.2.7 grafikoa).

R.2.7 grafikoa

Garraio-gastuaren garrantzia eta BPGren gainean izan dezakeen eragina, petrolioaren prezioak % 40ko jaitsiera izan osteko lau hiruhilekotan



Iturria: BBVA Research

Ondorioak

Eskualdeen arteko erlazioak biltzeko eta Espainiako ekonomian kanpo nahiz barne *shocken* transmisioa zenbartzeko gai den baliabide bat (BBVA-RVAR) aurkeztu dugu **errekoadro honetan**. Horretarako, BBVA-RVAR honek zera proposatzen du, eredu autorregresibo globalei buruz dagoen literatura eskualdeen ikuspegian oinarritutako Espainiako ekonomiaren azterketara egokitzea; eta, horrez gain, emaitzak hedatzen ditu, *shocken* ortogonalizazioaren ikuspegitik eta askotariko agertokien pronostikoetara.

Errekoadroan azaldutako ariketen emaitzetan topa daiteke i) **dinamismo handiagoko Europa baten agertokiak Euskadiko BPGk unitatetik gertuko elastikotasuna izatea ekarriko lukeela, batez beste, eskualdeko ekonomia 0,3 p.p.-tan dinamizatuz**. Bestalde, ii) **euroaren depreziazioak eragin esanguratsua eta positiboa du Euskadiko jardura ekonomikoan**. Zehazki, dolarraren aurrean euroak bere balioa 20 p.p.-tan galtzeak 1 p.p. inguruko eragina luke eskualdeko BPGn. Horrez gain, iii) uda bukaeratik petrolioaren prezioak izandako jaitsierak 1,2 p.p.-tan bultzatzen dezake eskualdeko BPG. Ekonomia suspertzeko aldeko faktore horien aurrean, iv) **Euskadik Espainiaren osokoaren gaineko elastizitateak erakusten ditu**. Dena den, ikusten da v) **EBk kanpoko sektorearekiko duen dependentsiak eta sektore-espezializazioak azalduko lituzketela agregatu nazionalarekiko eta beste autonomia-erkidegoekiko dituen alde marjinalak**.

Erreferentziak

BBVA Research (2012): *Situación España. Segundo Trimestre 2012*. BBVA. Madril. Hemen: <https://www.bbvaresearch.com/publicaciones/situacion-espana-segundo-trimestre-2012/>

Baxter eta Kouparitsas (2005): "Determinants of business cycle comovement: a robust analysis", *Journal of Monetary Economics* 52 (2005) 113-157

Cardoso-Lecourtois, Méndez-Marcano eta Ruiz-Sánchez (2014): "RVAR: A Multi-Regional Vector Autoregressive Model for Spain", (argitaratzeko zain).

Clarida eta Galí (1994): "Sources of real exchange rate fluctuations: How important are nominal shocks?", *NBER Working Paper Series*, 4658 zk..

Dees, Di Mauro, Pesaran eta Smith (2005): "Exploring the international linkages of the euro area: a Global VAR Analysis", *ECB Working paper Series*. 568 zk.

Dewachter, Houssa eta Toffano (2010): "Spatial Propagation of Macroeconomic Shocks in Europe", Katholieke Universiteit Leuven, *Discussions Paper Series (DPS)*, 10.12 zk.

Doan, Litterman eta Sims (1984): "Forecasting and Conditional Projection Using Realistic Prior Distributions", *Econometric Reviews*, 3. liburukia, 1 zk., 1-100.

Koop, Pesaran eta Potter (1996): "Impulse response Analysis in Nonlinear Multivariate Models", *Journal of Econometrics*, 74. liburukia, 119-147.

Pesaran eta Shin (1998): "Generalized Impulse Response Analysis in Linear Multivariate Models", *Economic Letters*, 58. liburukia, 17-29.

Pesaran, Schuermann eta Weiner (2004): "Modelling Regional Interdependencies Using a Global Error-Correcting Macroeconomic Model", *Journal of Business and Economic Statistics*, 22. liburukia, 2. zk., 2004)

Ramajo, Marquez eta Hewings (2013): "Does Regional Public Capital Crowd Out Regional Private Capital? A Multiregional Analysis for the Spanish Regions", *Estadística Española*, 55. liburukia, 180. zk.

Vansteenkiste (2007): "Regional Housing Market Spillovers in the US", *ECB Working Paper Series*, 708. zk.

3. Errekoadroa: Jarduera-tasak azken garaiotan Euskadin izandako bilakaera: egiturazko erronka

Sarrera

Zikloaren hedapen-fasean 5 puntu baino gehiago handitu ondoren (lan egiteko adinean den biztanleriaren % 59ra iritsi zen ia 2008an), Euskadiko jarduera-tasak dinamika negatiboa erakutsi du gerora³⁶, 2011n eten txiki bat izan arren. 2008tik 2014ra bitartean, parte-hartzea 1,5 puntu jaitsi zen. Funtsezkoa da jokaera horren atzean zer faktore dauden jakitea, izan ere, **enpleguarekin eta produktibitatearekin batera, laneko parte-hartzeak baldintzatzen du ekonomiaren hazkundearen ahalmena**³⁷.

Testuinguru horretan, **jarduera-tasaren zer zati dagokien egiturazko faktoreei aztertu da, eta zer zati koiuntura-aldaketeki, hau da, faktore itzulgarriei**³⁸. Lehenengoan artean, demografiak zer funtzio betetzen duen aztertu da (zehazki, biztanleriaren zahartzea hartu da kontuan), bai eta talde jakin batzuek lan-merkatuan parte hartzeko joeraren bilakaera ere (esate baterako, emakumearen laneratzea). Bigarrenengoan artean, behin-behineko faktoreek, ziklo ekonomikoak, esaterako, jarduera-tasan sortzen dituzten gorabeherak aztertu dira.

Emaitzek adierazten dutenez, Euskadin nahiz Espainian, egiturazko aldaketek agintzen dute parte-hartze tasaren jokabidean. Lehenik, biztanleriaren zahartzeak beherantz bultzatzen du jarduera-tasa baxua: *baby-boom* belaunaldiaren lehenengo norbanakoak parte-hartze altuaren fasea uzten hasi dira, eta jaiotza-tasa txikiek ez dute adierazten biztanleriaren piramidearen oinarria zabalduko denik. Bigarrenik, biztanleriaren zenbait taldetan jokabide ziklikoa ikusten den arren parte hartzeko joerari dagokionez (25 urtetik beherakoen artean, nagusiki), horien ekarpena nahiko txikia da.

Errekoadroaren azken zatian, **Euskadiko**

ekonomiak jarduera-tasa handitzeko zer gaitasun duen ebaluatu da. Horretarako, hainbat agertoki eraiki dira, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) egindako biztanleria-proiekzioak abiapuntutzat hartuz, eta biztaleria-taldean parte-hartze tasaren bilakaerari buruzko hipotesi exogenoak ezarriz.

Simulazioen emaitzek iradokitzen dutenez, eta aurreikuspen demografikoak aurka ditugula kontuan hartuta, **Euskadiko jarduera-tasak ez du gora egingo, gazteek eta, batez ere, 54 urtetik gorakoek parte hartzeko joeran igoera esanguratsua gertatzen ez bada behintzat.**

Euskadi: jarduera-tasa 20 urtean baino gehiagoan handitu ondoren, krisialdiak eten egin du joera hori

Euskadiko ekonomiaren jarduera-tasak etenik gabe egin zuen gora zikloaren azken hedapen-fasean, 2008an % 59ra iritsi arte ia; urte horretan, aldiz, ahitze-zeinuak agertzen hasi ziren. Ordutik erregistratutako beherakada, puntu eta erditik gorakoa, Espainiako gainerako eskualdeetan ere gertatu da³⁹, bai eta beste herrialde garatu batzuetan ere, Belgikan, Portugalen, Danimarkan eta AEBn⁴⁰, besteak beste.

Jarduera-tasaren dinamika aldatu egiten da biztanleria-taldean arabera. R.3.1 grafikoan ikus daitekeenez, 25 urtetik 54 urtera arteko Euskadiko gizonen parte-hartzeak ez du ia behera egin azken 40 urteetan. Aitzitik, 70eko hamarkadan emakumea lan-merkatuan sartzen hasi zenetik, ia 60 puntu igo da horren jarduera-tasa. Azkenik, gazteen eta zaharren parte-hartzeak kontrako bilakaera izan du. Hedapen-fasean gradualki gora egin ondoren, 25 urtetik beherakoen jarduera-tasa 13 puntu baino gehiago murriztu da krisia hasi zenetik –besteak beste, laneratzeko dituzten zailtasunen eta prestakuntza-etapa luzatzearen

36: Jarduera-tasa biztanleria aktiboaren eta 16 urtekoen eta hortik gorakoen arteko zatidura da.

37: Hernández de Cos, Izquierdo eta Urtasun-en (2011) arabera, jarduera-tasak Espainiako ekonomiak urtean izandako hazkunde-ahalmenari egindako ekarpena 6 ehuneko ingurukoa izan da azken hedapen-fasean (2000-2007).

38: Informazio gehiago izateko, ikusi 2015eko lehen hiruhilekoari buruzko Situación España aldizkariko 2. errekkoadroa. Hemen: https://www.bbva-research.com/wp-content/uploads/2015/02/Situacion-Espana_1T15-R2.pdf

39: Batez beste, jarduera-tasak autonomia-erkidegoetan azken garaian izan duen beherakada -1,2 puntu portzentualekoa (p.p.) da. Gutxieneko maila -0,4p.p.-koa da (Andaluzia), eta gehienekoa -2,3 p.p.-koa (Balearrak).


40: Ikusi Bengali, Daly eta Valletta (2013), Executive Office of the President of the US (2014), edo Fujita (2014), besteak beste.

ondorioz. Kontrara, 54 urtetik gorakoen parte-hartzeak gora egiten jarraitu du, talde horren lan-bizitza luzatu egin baita.

Biztanleria-talde bakoitzaren jarduera-tasen bilakaera diferentziala ez da Euskadin gertatutako fenomeno soilik, autonomia-erkidego guztietan gauza bera ikusi baita. Gainera, datuek iradokitzen dutenez, talde bakoitzaren barneko joerak ere bat datoz. R.3.2 grafikoa ikus daitezkeenez, parte-hartze tasen barreiatzea txikia da, eta, gazteen kasuan izan ezik, beheranzko joera du denboran.

R.3.1 grafikoa


Euskadi: jarduera-tasa biztanleria-taldearen arabera (%)



Datu atipikoak eta aldaketa metodologikoak zuzenduta
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

R.3.2 grafikoa

Jarduera-tasaren barreiatzea autonomia-erkidegoen artean eta biztanleria-taldearen arabera (aldakuntza-koefizientea ehunekotan)



Datu atipikoak eta aldaketa metodologikoak zuzenduta
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Parte hartzeko joera edo konposizio-efektua?

R.3.1 grafikoa jasotako ebidentziak iradokitzen duenez, 25 urtetik 54 urtera arteko gizonen eta, batez ere, gazteen laneko parte-hartzearen beherakada lagungarri da Euskadin jarduera-tasa agregatuak azken garaiotan agertu duen geldotasuna azaltzeko (ikus R.3.1 grafikoa). Hala ere, arrazoi gehiago ere izan daitezke. Batez bestetik beherako parte-hartzea duten biztanleria-taldearen pisua –gazteak eta 54 urtetik gorakoak– handitu izan balitz, ekonomiaren jarduera-tasak behera egingo luke, norbanako bakoitza aktibo izateko duen joera handitu arren. Horri esaten zaio ‘konposizio-efektua’.

Bereizi nahi badugu jarduera-tasaren dinamikaren zein zati den talde bakoitzaren parte-hartzearen aldaketaren ondorio eta zein konposizio-efektuaren ondorio, *shift-share* analisia egin behar da. Honela adieraz daiteke jarduera-tasaren aldakuntza $t-j$ eta t urteen artean ($\Delta LFPR_t = LFPR_t - LFPR_{t-j}$):

$$\Delta LFPR_t = \sum_i \left[\underbrace{(LFPR_t^i - LFPR_{t-j}^i) p_t^i}_{\text{Parte-hartze efektua}} + \underbrace{(p_t^i - p_{t-j}^i) LFPR_{t-j}^i}_{\text{Konposizio-efektua}} \right]$$

non i biztanleria-taldea den (25 urtetik beherakoak, 25 urtetik 54 urtera arteko gizon-emakumeak eta


54 urtetik gorakoak); eta p , lan egiteko adina duen biztanleriaren gain talde bakoitzak duen pisua.

R.3.2 grafikoak, berriz, Euskadiko jarduera-tasa agregatuaren hazkundearen deskonposizioa agertzen du, bosturtekotan. Arreta azken bosturtekoan jartzen badugu, ikus daiteke **jarduera-tasaren murrizketa, gazteen ekarpen negatiboaren ondorio izateaz gain, 25 urtetik 54**

urtera arteko biztanleriaren pisua gutxitzearen ondorio ere badela. Lan-merkatuan parte hartzeko joera handiena duen taldea zahartu izanaren eragina handiagoa izango litzateke emakumeak eta 55 urteko eta gehiagoko biztanleriak jarduera-tasaren bilakaeran ekarpen positiboa egiten jarraitu izan ez balute.

R.3.3 grafikoa

Euskadi: jarduera-tasaren bost urteko aldakuntzari egindako ekarpenak (p.p.)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Jarduera-tasaren deskonposizio bat egiturazko

Aurreko ataleko emaitzek iradokitzen dute jarduera-tasa **egiturazko faktoreen eta behin-behineko faktoreen** mende dagoela, eta horien eragina berbera izan daiteke eskualdeen artean, baina ez biztanleria-taldeen artean⁴¹. Ideia hori berresteko, **behatu gabeko osagaien eredu bat** erabili da autonomia-erkidegoetarako eta 1976-2014 tarterako.⁴²

i biztanleria-taldearen jarduera-tasa j -garren eskualdean eta t hiruhilekoan ($LFPR_{i,j,t}$) honela adieraz daiteke:

$$LFPR_{i,j,t} = \alpha_{i,j} * TLS_{i,t} + \beta_{i,j} * C_{i,t} + (\mu + \vartheta)_{i,j,t},$$

non $\alpha_{i,j}$ eta $\beta_{i,j}$, hurrenez hurren, joeraren ($TLS_{i,t}$) eta zikloaren ($C_{i,t}$) eraginak diren; eragin horiek berberak dira autonomia-erkidego guztietan i -garren taldearentzat. Bestalde, $(\mu + \vartheta)_{i,j,t}$ osagai idiosinkratikoa da, eta eskualde bakoitzeko

elementu bereziak biltzen ditu.

R.3.4-tik R.3.7-ra arteko grafikoek azterketa horretatik Euskadirako ondorioztatzen diren emaitza nagusiak adierazten dituzte:


- **25 urtetik beherakoen jarduera-tasak joera beherakorra agertzen du, eta zikloa berbera da autonomia-erkidego guztietan.** Hala ere, beherazko joera nabarmenagoa da Euskadiko gazteen laneko parte-hartzean, faktore idiosinkratikoak jasotzen duenaren ildotik: batez beste, desbideratzearen 5,5 puntu dagozkio joera komunarekiko. Azkenik, osagai ziklikoak ez du jarduera-tasaren 1,3 puntutik gora adierazten (ikusi R.3.4 grafikoa).
- 55 urtetik beherako emakumeei dagokienez, joera komun positiboa izan dela berretsi da. **Euskadiko emakumeen jarduera-tasa joera orokorra baino goraxeago dago**, eta faktore idiosinkratikoaren balio positiboan jasota geratu da hori. Osagai zikliko komun bat ere hauteman da, baina ez da esanguratsua (ikusi R.3.5 grafikoa).

41: Estatu Batuetako ekonomiaren kasuan, adibidez, parte-hartze tasaren jaitsieraren heren bat, gutxi gorabehera, itzulgarria da, narriadura ziklikoan jasota baitago (NMF, 2014).

42: Ereduari buruzko zehaztasun gehiago izateko, ikusi 2015eko lehen hiruhilekoari buruzko Situación España aldizkari 2. errekoadroa.


- **25 urtetik 54 urtera arteko gizonezkoek ez dute aldaketa nabarmenik jasan lan-merkatuan parte hartzeko joeran**, baina joerak apur bat beherantz egin duela ikus daiteke. Horrez gain, talde horretan ziklo komunik dagoenik baztertu da, eta osagai idiosinkratikoa ez da garrantzitsua estatistikaren ikuspegitik (ikusi R.3.6 grafikoa).
- **55 urtetik gorakoek lan-merkatuan duten parte-hartzeari buruzko estimazio erlatiboetan seinale positiboak ikusten dira**⁴³ (ikusi R.3.7 grafikoa). Zehazki, goranzko joera komuna hautematen da 90eko urteen amaieratik. Erretiroa hartzeko adina atzeratu egin da, eta kotizaziopeko pentsioa jasotzeko baldintzen araudian aldaketak gertatu dira; horrek guztiak talde horren parte-hartzearen areagotzea azkartu du. Azkenik, estimazioek adierazten dutenez, ez dago osagai zikliko bakar bat, eta faktore idiosinkratikoak bi puntutik beherako eragina adierazten du.

R.3.4 grafikoa
25 urtetik beherako gazteak: jarduera-tasaren deskonposizioa, ziklo eta joeraren arabera




Iturria: BBVA Research

R.3.5 grafikoa
25 urtetik 54 urtera arteko emakumeak: jarduera-tasaren deskonposizioa, ziklo eta joeraren arabera



Iturria: BBVA Research

R.3.6 grafikoa
25 urtetik 54 urtera arteko gizonak: jarduera-tasaren deskonposizioa, ziklo eta joeraren arabera




Iturria: BBVA Research

43: Talde honen jarduera-tasaren estimazioetan ez da kontuan hartu Galizia. Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikusi 2015eko lehen sei hilabekoari buruzko Situación Galicia aldizkaria. Hemen: <https://goo.gl/4OH7kw>

R.3.7 grafikoa

54 urtetik gorakoak: jarduera-tasaren deskonposizioa, zikloen eta joeren arabera




(*): estimaziotik kanpo utzi da Galizia
Iturria: BBVA Research

Lehengoratu dezake Euskadiko ekonomiak parte-hartze tasaren geldialdia? Europako Iparraldeko herrialdeak paradigma gisa hartuta

Aurreko ataleko grafikoetan adierazitakoaren ildotik, **jarduera-tasaren bilakaera Euskadin egiturazko faktoreen ondorio da nagusiki**. Beraz, zaila izango da parte-hartzea krisiaren aurreko kopuruetara itzultzea automatikoki, ziklo ekonomikoaren aurreko hedapen-fasean behatutako jarduera-mailak berreskuratzen direnean. Dena den, **ebidentzia enpirikoak adierazten duenez, eskualdeko jarduera-tasak, Espainiakoak bezalaxe, hobera egiteko marjina izango du**. 25 urtetik 54 urtera arteko langileek erreferentzia-ekonomien antzeko parte-hartze kopuruak lortu dituzte –baita handiagoak ere– (ikusi R.3.8 grafikoa). Bestalde, 25 urtetik beherakoen jarduera-tasak erreferentzia-ekonomien nahiko azpitik daude, baita estatuko batez bestekoaren azpitik ere. Azkenik, 54 urtetik gorakoak EB-15en batez bestekotik behera daude, AEBtik eta Europako Iparraldeko herrialdeetatik oso urrun.

R.3.8 grafikoa

Jarduera-tasa adin tarteen arabera (2013, %)



Iturria: BBVA Research, ELGEn oinarrituta


Euskadiko jarduera-tasa agregatuak hurrengo urteetan zer-nolako bilakaera izan dezakeen aurretateko, parte-hartzearen sei agertoki eraiki dira (ikusi R.3.1 koadroa). INEren azken biztanleria-proiekzioak erabili dira⁴⁴ (2014-2064) biztanleria-atal bakoitzaren jarduera-tasa haztatzeko (ikusi R.3.9 grafikoa).

Lehenengo agertokian ('Euskadi 2014'), eskualdeko parte-hartzeari dagozkion tasek 2014ko maileri eutsi diete. Bigarrenengoan ('EB-15') eta hirugarrenengoan ('AEB'), 2029. urtean lortuko luke talde bakoitzak Europako edo Estatu Batuetako parekoen jarduera-tasa. Laugarrenengoan ('AAEE Top 3') eta bosgarrenengoan ('Europako Iparraldeko herrialdeak'), talde bakoitzaren parte-hartzea bat etorriko litzateke parte-hartze handiena duten hiru autonomia erkidegoen batez bestekoarekin (Balearrak, Madril eta Katalunia), edo Europako Iparraldeko herrialdeetako batez bestekoarekin (Finlandia, Norvegia eta Suedia), hurrenez hurren. Azkenik, 'Agertokirik onena' ere adierazi da, eta, agertoki horretan, jarduera-tasek aurreko agertokietako gehieneko balioak lortuko litzukete.

44: Hemen eskura daitezke: <http://www.ine.es/jaxi/menu.do?type=pcaxis&path=/t20/p278/p01/serie/&file=pcaxis>

R.3.9 grafikoa

Euskadi: biztanleria-piramideak. 2014. eta 2029. urteak



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

R.3.1 koadroa

Jarduera-tasaren agertokiak 2029an. Konbergentzia-balioak

| | 25 urte azpikoak | 25-54 urteko emakumeak | 25-54 urteko gizonak | 54 urtetik gorakoak |
|---|------------------|------------------------|----------------------|---------------------|
| Euskadi 2014 | 29,3 | 84,7 | 93,5 | 21,8 |
| EB15 | 46,5 | 79,4 | 91,8 | 26,0 |
| AEB | 55,0 | 73,9 | 88,4 | 40,3 |
| AEEE, top 3 | 45,4 | 85,3 | 94,5 | 26,3 |
| Europako Iparraldeko herrialdeak | 54,1 | 85,7 | 91,5 | 45,0 |
| Agertokirik onena | 55,0 | 85,7 | 94,5 | 45,0 |

Iturria: BBVA Research, INEn eta ELGEN oinarrituta

R.3.10 grafikoaren emaitzek adierazten dutenez, **Euskadiko ekonomiaren jarduera-tasa epe erdian handitu ahal izateko, gazteek eta, batez ere, zaharrenek lan-merkatuan parte hartzeko joerak AEBko edo Europako Iparraldeko herrialdeetako joeretara hurbilu behar dira.** Euskadiren kasuan, 54 urtetik gorakoen parte-hartzearen igoerak garrantzi handiagoa du, penintsulako iparraldeko beste eskualde batzuetan bezala, zahartze-prozesua nabarmenagoa baita, eta estatuko batez bestekoaren gainetik baitago.

Egoera hori aldatuko ez balitz⁴⁵, biztanleriaren zahartzeak ia 9 puntuko jaitsiera eragingo luke jarduera-tasa agregatuan hurrengo 15 urteetan⁴⁶.


45: Agertoki honek ez ditu kontuan hartzen biztanleria-taldean jarduera-tasan gerta daitezkeen aldaketak, eta, beraz, muturreko kasu bat balitz bezala hartu beharko litzateke. 54 urtetik gorako kolektibora talde gehiago erantsi ahala, talde horren parte-hartze tasa ere handi daiteke.

46: Erabilitako proiektzio demografikoekiko sendoak dira emaitzak. INEK 2001ean aurreikusitako agertoki demografikoa hautatzen bada –gaur egungoa baino baikorragoa zen–, emaitza kualitatiboak ez dira ia batere aldatzen.

Biztanleria-talde bakoitzeko aktiboen ehunekoa lehen postuetan dauden autonomia-erkidegoetakoekin bat etorriko balitz ere, beherakada 4 puntutik gorakoa izango litzateke baita ere.

R.3.10 grafikoa

Euskadi: jarduera-tasa agregatuaren proiektzioak (%)



Iturria: BBVA Research, INE, eta ELGEN oinarrituta

Ondorioak

Euskadik jarduera-tasaren beherakada jasan zuen azken hirurtekoan, ia 20 urtez etengabe handitu ondoren; gertaera kezagarria da hori, laneko parte-hartzea baita hazkunde ekonomikoaren ahalmenean eragiten duen faktoreetako bat.

Errekoadro honetan, Euskadiko jarduera-tasaren bilakaeraren atzean dauden arrazoiak aztertu dira. Emaitzek adierazten dutenez, **egiturazko faktoreek (biztanleria zahartzea eta prestakuntza-etapa luzatzea) zehazten dute parte-hartze tasaren azken aldiko jokabidea.** Aitzitik, koiuntura-faktoreen aldeko ebidentzia gutxi daude, eta, beraz, **ez dirudi egoerak atzera egingo duenik ziklo ekonomikoak hobera egiten badu ere.**

Azkenik, **Euskadiko ekonomiak bere jarduera-tasan egiturazko hazkundera garatzeko duen ahalmena** aztertu da errekkoadroan. Emaitzen arabera, demografia gehiago zahartzea espero denez, **laneko parte-hartzea ez da modu esanguratsuan handituko, gazteen eta, batez**

ere, 54 urtetik gorakoen taldean parte-hartzeko joeran igoera esanguratsua gertatzen ez bada behintzat. Horregatik, lan-bizitza luzatzea sustatuko duten politikak positiboki balioetsi behar dira.

Erreferentziak

BBVA Research (2015): "La caída reciente de la tasa de actividad en España: un desafío estructural", *Situación España. Primer trimestre de 2015*. Hemen: https://www.bbvaresearch.com/wp-content/uploads/2015/02/Situacion-Espana_1T15-R2.pdf

Bengali, L., M. Daly eta R. Valletta (2013): "Will Labor Force Participation Bounce Back?", Federal Reserve Bank of San Francisco *Economic Letter*.

Doménech, R. eta J.R. García (2012): "Sobre la necesidad de prolongar la vida laboral en España" *Observatorio Económico*. BBVA Research. Hemen:

<https://www.bbvaresearch.com/publicaciones/sobre-la-necesidad-de-prolongar-la-vida-laboral-en-espana>

Executive Office of the President of the US (2014): "The Labor Force Participation Rate since 2007: Causes and Policy Implications". *Council of Economic Advisers*.

FMI (2014): "Recent US Labor Force Participation Dynamics: Reversible or not?", *IMF Country Report* 14/222.

Fujita, S. (2014): "On the Causes of Declines in the Labor Force Participation rate". Federal Reserve Bank of Philadelphia *Special Report*.

Hernández de Cos, P., M. Izquierdo eta A. Urtasun (2011): "Una estimación del crecimiento potencial de la economía española". *Documentos Ocasionales*, 1104. zk. Banco de España.

Hemen: <http://www.bde.es/f/webbde/SES/Secciones/Publicaciones/PublicacionesSerias/DocumentosOcasiones/11/Fich/do1104.pdf>

4 Zer diote lurraldez lurraldeko kontuek? Euskadiren kasua

Ángel de la Fuente - FEDEA eta Análisi Ekonomikorako Institutua (CSIC.) 2014ko iraila

1. Sarrera

Bada Espainiako debate politikoan behin eta berriro errepikatu den gai nagusi bat: gastu publikoak eta horiek finantzatzen dituzten zergak lurraldeetan banatzeak erakusten duten ekitatea. Gai horren inguruko eztabaida publikoa, indar handiagoz edo txikiagoz, autonomia erkidego guztietan eman da. Horietan guztietan eta zergen arloan Estatuarekin dituzten harremani lotuta, bidegabekotzat jotzen diren alderdietan jarri da arreta batez ere, edota tokiko ikuspegitik diskriminatzailetzat hartzen diren alderdietan, oinarri finko eta dokumentaturik izan gabe askotan.

Lurraldez Lurraldeko Kontu Publikoen Sistema berriak (LLKPS), Ogasun eta Herri Administrazioen Ministerioak berriki onartutako sistema horrek, beharrezkoak diren datu guztiak eskaini nahi dizkio Espainiako iritziz publikoari, debate horri ondo informatuta heltzeko. Estatuaren kontu publikoen erradiografia zehatza eskaintzen du tresna estatistiko berri horrek, eta gastu eta diru-sarrera publikoen osagaiek lurraldez lurralde duten banaketaren arazoizkotasuna eta zuzentasuna ebaluatzeko modua ematen du, kasu bakoitzean horiek horrela egiteko logikarekin bat etorrita, betiere.

De la Fuentek (2014) LLKPSren metodologia laburbiltzen du, berorren emaitza nagusiak aurkezten ditu 2005eko eta 2011ko ekitaldiei dagokienez, eta berorien inplikazio batzuk aztertzen ditu, kontu agregatueta zentratuta.⁴⁷ Metodologiari buruzko sarrera labur honen ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoeran zentratu da honako idatzi hau, aurrekontu-sailetan duen parte-hartzearen ikuspegitik.

2. LLKPSren metodologia

Lehenengo koadroak LLKPSren egitura laburbiltzen du gaingiroki. Administrazio zentral hipotetiko baten diru-sarrerak eta gastuak jasotzen ditu sistemak, herrialdeko zerga-baliabide guztiek hasiera batean izango beharko luketena gehituta eta, ondoren, berorien zati bat lurralde-administrazioetara bideratuta, bai transferentzien bidez eta bai zenbait zerga haiei lagaz. Beraz, bai udal-zergak eta bai autonomia-erkidegoei lagatako zergak edota haiekin itundutakoak diru-sarreraren atalean eta gastuen atalean, bietan, ageri dira, eta, azken kasu horretan, autonomia-erkidegoen eta tokiko finantzaketari dagozkien sailetan sartzen dira. Ildo horretatik, sektore publikoaren ia diru-sarrera guztiak biltzen dira, eta, analisi horretan, lurralde-administrazioak beren eskumenero zerbitzuak emateko dituzten baliabide agregatuaren atalean ager daitezten lortzen da, eta ez gastuen atalean. LLKPSren ikuspegitik autonomia-erkidegoen eta tokiko erakundearen finantzaketa osoa delako interesa duen aldagai bakarra egin da hori horrela; izan ere, horixe da administrazioek zerbitzuak emateko duten gaitasun globala mugatzen duena; beren autonomiaz baliatuz, gastuen eredu oso desberdinak hauta ditzakete horiek, lurraldeen arteko ekitatearen ikuspegitik inolako arazorik sorrarazi gabe.

47: Lan hori hemen aurki daiteke: <http://www.fedea.net/documentos-hacienda-autonomica/>. Lurraldez Lurraldeko Kontu Publikoen Sistemaren metodologiari eta berorren emaitzei buruz sakonkiago eztabaidatzeko, ikusi hau ere: de la Fuente, Barberán eta Uriel (2014).

Cuadro 4.1

Estructura General del SCPT**I. DIRU-SARRERAK****I1. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen zerga-sarrera homogeneoak**

I1.1. Zuzeneko zerga homogeneizatuak

I1.2. Zeharkako zerga homogeneizatuak

I2. Eskualdeen zerga-ahalegin handia eta zerga-beherapena Kanarietan eta Ceuta eta Melillan**I.3. Udal-zergak****I4. Kotizazio sozialak****I5. Administrazio Zentralaren beste diru-sarrera batzuk**

I5.1. Tasak, prezio publikoak eta ondasun eta zerbitzuen salmentetako beste sarrera batzuk

I5.2. Beste finantza- eta ondare-sarrera batzuk

Sarrerak osotara, zerga-ahalegin bera eginda = I1 + I3 + I4 + I5**Diru-sarrerak osotara = I1 + I3 + I4 + I5 + I2****G. GASTUAK****G1. Administrazio orokorra eta ondasun eta zerbitzu publiko nazionalak****G2. Lurraldeei (berez) esleiri dakizkiekeen gastuak****G2.1 Finantzaketa autonomikoa**

Lurraldeen diru-sarrera homogeneoak

- Araubide erkideko autonomia-erkidegoen eskumen berezietarako baliabideak

+/- Beste eskumen atipiko batzuen ondorioz doikuntzak foru-ek eta Ceuta eta Melilla*

= *Finantzaketa eskumen homogeneotan eta zerga-ahalegin berean*

+ Eskualdeen zerga-ahalegin handia

= *Finantzaketa osoa eskumen homogeneotan***G2.2. Tokiko finantzaketa****G2.3. Ekoizpenaren eta ingurumenaren arloko azpiegiturak****G2.4. Eskualdeei zuzendutako laguntzak****G2.5. Lurraldeei esleiri dakizkiekeen beste gastu batzuk: osasuna, hezkuntza, segurtasuna, kultura.****G3. Babes eta sustapen soziala****G4. Erregulazio eta sustapen ekonomikoa****G5. Zor publikoaren interesa***Gastua osotara = G1 + G2 + G3 + G4 + G5**Gastua osotara, zerga-ahalegin berean = Gastua osotara - eskualdeen zerga-ahalegin handia*

Oharra: (*) Eskualdeetako finantzetaren sailari eransten zaizkion zenbatekoak edota eskumen ez homogeneoak izateagatik zuzentzeko xedez bertatik kendu direnak beste gastu-sail batzuetara aldatu dira, edo beste sail batzuetatik datoz.

Iturria: A. de la Fuente

Diru-sarrerei dagokienez, Estatuak eta autonomia-erkidegoek nahiz foru-ogasunek zergen esparruan izandako diru-sarrera homogeneizatuak hartu dira abiapuntutzat; hau da, Espainia osoan zerga-eskala komuna aplikatuz administrazio horiek bilduko zutena kalkulatu da abiapuntu gisa. Sail horri, hala dagokionean, eskualdeen “zerga-ahalegin handia” erantsi zaio, eta autonomia-erkidegoek ezarritako zerga propioak eta haien esku lagatakoak igotzeko edo jaisteko duten zerga-ahalmen arauemaileaz bakoitzak egin duen erabileraren emaitza den bilketa diferentziala sartu dira bertan. Egindako ahalegin handiari dagokion sailean sartu dira (ikur negatiboarekin) Kanaria uharteek eta Ceuta eta Melillak beren zerga-erregimen bereziari esker dituzten zerga-beherapenak. Ondoren, udal-zergak, kotizazio sozialak eta Administrazio Zentralaren bestelako diru-sarrerak sartu dira (estatuak, erakunde autonomoak eta Gizarte Segurantzak), LLKPSn jasotzen den diru-sarrera publiko guztien agregatua osatzeko.

Gastu publikoaren osagaiak bakoitzaren funtsa den logikaren arabera balioesteko bidea erraztu asmoz, LLKPSk bost sail handi bereizten ditu gastuetan, eta horietako bakoitzak bere helburuak ditu, eta lurralde bakoitzarekin era askotara erlazionatzen da. Sail horietatik lehenengoak (1. koadroko G1) interes orokorra duten Estatuak ondasun eta zerbitzu publikoak biltzen ditu, hau da, defentsa, kanpo-harremanak eta

Estatuko goi-erakundeen funtzionamendu-gastuak, espainiar guztiei onura berak dakartzkienak, bakoitza non bizi den eta zerbitzu horien ekoizpen-unitateak fisikoki non kokatzen diren alde batera utzita. Hirugarren sailak (G3) prestazio eta zerbitzu sozialen ataleko gastuak biltzen du (pentsioak edota langabezia-sariak, adibidez). Izaera pertsonala duten sari eta laguntzak dira, gizabanakoen artean bana daitezkeen onurak adierazten dituztenak, eta, printzipioz, Estatuaren lurralde osoan ordaintzen edo jasotzen dira, irizpide uniformeetan oinarrituta eta herritar bakoitzaren egoera ekonomikoa eta pertsonala aintzat hartuta. Programen laugarren atalak (G4) erregulazio eta sustapen ekonomikoaren esparruko gastua biltzen du, enpresa eta sektoreei irizpide ekonomiko eta sektorialen arabera ematen zaizkien laguntzak ere barnean hartuta; eta bosgarren sailak (G5) Estatuaren zor publikoaren interesak jasotzen ditu.

Gastuen ataleko bigarren sailean (G2), LLKPSn berez lurraldeei esleai dakizkiekeen gastuak deritzon atala sartu da. Oro har, bizi diren tokiaren arabera herritarrek beren esku dituzten zerbitzu eta prestazioak finantzatzeko dituen atala dela esan daiteke. Tokiko eta autonomia-erkidegoetako administrazioen finantzaketa hemen sartzeko da, bai eta eskualdeei zuzentzen zaizkien Estatuko eta Europako zenbait laguntza-programa, Administrazio Zentralak ekoizpen- eta garraio-azpiegiturretan duen esku-hartzea, eta hezkuntzan, osasunean eta kontsumo kolektiboaren esparruko eta tokiko edo eskualdeko izaerako beste ondasun eta zerbitzu publikoetan egindako gastua ere (hondar-izaerakoa askotan), hala nola herritarren segurtasunean edota kultura-ekipamenduetan egindakoei dagokiena. Oro har, tokian-tokian ekoizti behar diren zerbitzuen finantzaketari dagozkio, hau da, askotan lurralde bateko biztanleen multzoak modu kolektiboan kontsumitzen dituen zerbitzuen finantzaketari. Ezaugarri horiek kontuan hartuta eta beste programa talde handi batzuetan gertatzen ez den bezala, autonomia-erkidegoetan biztanleko hautemandako batez besteko gastua (ziurrenik kostu-faktoreen ondorioz doitutakoa) erreferentzia interesgarria da, berdintasun-logika bati erantzun behar liekeen lurraldez lurraldeko gastuen azpikategorien barnean, eta baliabide publikoak lurraldez lurralde banatzerakoan zer disfuntzio edo desoreka dauden abisu emateko balio dezakete. Nahiz eta, kasu batzuetan, hala nola lurraldeei zuzendutako laguntzetan, ez litzatekeen inola ere gastua berdinduz banatzea espero behar, datu garrantzitsuak da orain ere biztanleko kostua, eta, horregatik, esplizitu egitea komeni da; ildo horretatik, programaren ondorio diren onuren argitan balioetsi beharko da kasu bakoitza.

Eskualdeen finantzaketa eta eskumen atipikoen ondoriozko doikuntzak

Lurraldeei esleai dakizkiekeen gastuen barnean, LLKPSn arreta berezia jarri zaio eskualdeen finantzaketako agregatu homogeen baten eraikuntzari (G2.1), eskumen homogeen kasuan eta zergetan ahalegin bera eginda; izan ere, eskualde guztien artean konparazio baliagarriak egiteko aukera ematen du, foru-lurraldeak ere barnean hartuta, nahiz eta horien artean eskumenei dagokienez alde nabarmenak izan. Agregatu horretara iristeko, ezinbestekoa da zenbait doikuntza egitea eskualdeen finantzaketako datu gordinetan, eta batez ere gastuetan zenbait sail lekuz aldatzea adierazten du horrek, goranzko edo beherazko izaeraz eskumen atipikoak dituzten autonomia-erkidegoen edo hirien kasuan. Adibidez, espetxe-erakundeen kudeaketa bereganatu duen autonomia-erkidego bakarra Katalunia denez, Estatuak ez du ezer gastatzen zerbitzu horretan Kataluniako lurraldean, baina baliabide batzuk bideratzen ditu Generalitatera eskumen horren kostua estaltzeko, eta autonomia-erkidegoen finantzaketaren sailean sartzeko da gastu hori. Bai autonomia-erkidegoen atalean eta bai segurtasun eta justiziaren ataleko gastuen atalean horrek konparazioen arteko distorsioa eragin dezakeenez, beharrezkoa da Kataluniaren kasuan aipatutako transferentzia hori lehen sailetik kentzea eta bigarrengoan eranstea, distorsio hori saihesteko; beraz, aurrekontuko bi agregatu zuzentzen dira horrela eskualde honetarako, eta, hasierakoak ez bezala, horiek inolako arazorik gabe erabil daitezke beste lurralde batzuetako datu homologoekin alderatzeko. Alderantzizko egoera dugu Ceutan eta Melillan: Espainiako gainerako lurraldeetan lurralde-administrazioek kudeatzen dituzten zerbitzu garrantzitsu batzuk Administrazio Zentralak ematen ditu zuzenean Ceutan eta Melillan, hala nola osasuna eta hezkuntza. Kasu horretan, Estatuko gastu garrantzitsu hori eskualdeen

finantzaketaren atalera aldatu behar da, bai azken aldagai hori eta bai jatorrizko kontu-saila autonomia-erkidegoetarako kalkulatu direnekin alderatzeko modua izan dadin.

Foru-erkidegoen kasua

Foru-erkidegoen kasuan, lurralde-finantzaketa homogeneousatuaren kalkulua apur bat konplikatuagoa da araubide erkideko autonomia-erkidegoen kasuan baino. Foru-lurraldeetan, abiapuntutzat zuzenean foru-aldundiek bildutako kudeaketa zuzeneko tributu itunduetan jasotzen diren diru-sarrerak hartzen dira (ia guztiak, kotizazio sozialekoak salbu). Ondoren, BEZaren esparruko (barnean hartuta inportazioak zergapetzen dituen, bere osotasunean Estatuak biltzen duena) eta Zerga Berezien ataleko diru-sarreraren banaketa, foru-ogasunen eta Estatuaren artekoa, kasu bakoitzean zergapetutako kontsumoen banaketari egokitzeko egiten diren doikuntza teknikoak erantsi dira. Autonomia-erkidego bakoitzaren finantzaketa garbia lortzeko, aurreko kalkulu horretatik ateratzen den zenbatekoari foru-erkidegoek Estuari egiten dizkieten transferentziak kentzen zaizkio; printzipioz, transferitu ez zaizkien eskumenen kostutik dagokien zenbatekoa estaltzeko egiten dituztenak; hau da, euskal kupoa eta Nafarroaren ekarpena. Puntu horretan, kontuan hartzen dira Zerga Bereziak ituntzeko unean erabakitako konpentsazio finantzarioei lotuta administrazioen artean egiten diren transferentziak ere .

Kalkulu horietatik ateratzen den zenbatekoari foru-lurraldeetan eskumen atipiko zenbaiti dagozkien kostuak kendu behar zaizkio. Esparru horretan, Euskadiren eta Nafarroaren egoera Kataluniakoaren antzekoa da, baina eskumen atipiko ugari dituzte, herrialdeko beste hainbat eskualdetan Estatuaren ardurapean daudenak. Besteak beste, zergen kudeaketa eta katastroa, udalen finantzaketa osatzen duten transferentziak, errepideen eraikuntza eta kontserbazioa, kotizazio gabeko pentsioak, ikasleei zuzendutako beka eta laguntzak, eta aurrekontuetan horrenbesteko garrantzirik ez duten beste asko. Kataluniaren kasuan, bada garrantzi berezia duen alderdi konplikatu bat: ez dago modu esplizituan egindako balioespen ofizialik eskumen horietako askotarako. Horrelako kasuetarako, bada prozedura bat, horrelakoak balioesteko erabiltzen dena: foru-erkidegoei kontzeptu horri lotutako gastuari dagokion fikziozko bolumen bat esleitzen zaio, eta, horretarako, horietako bakoitzean per capita gastua (barnean hartuta bai zuzenketa eta bai Estatuak egindako gastua, nulua ez bada) Espainiako gainerako lurraldeetan kontzeptu horretan den batez besteko per capita gastuarekin parekatzea hartzen da irizpidetzat. Gainera, zuzenketari dagokien zenbateko osoa foru-erkidegoei dagokien lurralde-finantzaketatik kendu egiten da, eta Estatuaren gastuari eransten zaio, dagokion kontzeptuari lotuta. Horrela, beste eskualde-gobernu batzuetan aurrekontu-kosturik ez duten jarduera batzuk finantzatzeko kostua kenduta ageri da foru-erkidegoetarako kalkulaturako eskualde-finantzaketa zuzendua, Espainiako gainerako lurraldeetan ikusi den batez besteko balioaren arabera, betiere; eta jarduera horiei autonomia-erkidegoan dagokien gastua beste atal batera aldatu da, kasu batzuetan Estatuak eta beste batzuetan autonomia-erkidegoek kudeatutako beste gastu batzuetan konparazio homogeneousoak egiteko aukera izan dadin.

Euskadiren kasuan, kalkulu horiek eginda lortzen den eskualde-finantzaketaren agregatua halako hibrido bat dela azpimarratu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoaren finantzaketa bera ez ezik, barnean hartzen baitu probintzietako foru-ogasunen baliabideen zati bat ere. Araubide erkidearen barneko diputazio izan balira eskura izango zituzten baliabideen estimazioa soilik esleitzen zaie diru-sarrera gisa foru-ogasun horiei LLKPSn, eta eskualde-finantzaketako agregatu artifizial batean sartzean da gainerako finantzaketa, hertsiki autonomia-erkidegoari dagokionarekin batera, eskumen homogeneousoen atalean; eta horren bertute nagusia araubide erkideko autonomia-erkidegoetarako kalkulaturako finantzaketarekin konparatzeko modua ematea da.

Diru-sarrerak eta gastu publikoa egozteko irizpideak

LLKPS osatzeko, behar-beharrezkoa da diru-sarreraren eta gastuen sailak Espainiako eskualdeen artean banatzea, barnean hartuta Ceuta eta Melilla ere, hamazazpi autonomia-erkidegoei erantsi beharreko lurralde bakar gehigarri modura. Literaturan, zeregin honetarako erabil daitezkeen metodologia ugari ageri dira; baina ikuspegi bakarra da egokia, kontuan hartzen badugu LLKPSren funtsezko helburua jarduketa publikoaren ondorio diren kostu eta etekinen banaketa zuzenari buruzko eztabaidaz informazioa ematea dela: karga/irabazia deritzona da, gastu publikoaren etekinen eta horiek finantzatzeko zerga-kargen banaketa geografikoan oinarritzen dena. Metodologia horren bidez, gastu publikoa onuradunak bizi diren lurraldeari esleitzen zaio, onuraduntzat ondasun, zerbitzu edo prestazio horien kontsumitzaile edo hartzaile diren herritarrek hartuta –eta ez berorien zuzeneko ekoizleak, gastu publikoaren berehalako hartzaile izan baitaitezke, egin duten lanaren edo tarteko ondasun edo zerbitzuen ekoizpenaren kontraprestazio modura, baina inoiz ez zerbitzu horien azken xede-. Ildo horretatik, zergetako diru-sarrerak eta kotizazio sozialak zergadunen bizileku diren autonomia-erkidegoei esleitzen zaizkie, horietatik baitira zerga bakoitzaren kargari eusten diotenak, nahiz eta ez izan nahitaez horiek lehen batean ordaintzen dituztenak eta nahiz eta zergapetu daitezkeen egintza hori gertatu den lurraldetik desberdina izan daitezkeen.


Beste azterlan batzuetan ez bezala (ikus, adibidez, Generalitat de Catalunya, 2014), LLKPSn muzin egin zaio fluxu monetarioaren metodo deritzonaren arabera diru-sarrerak eta gastuak modu alternatibo batean egozteari. Banaketa-irizpide horren erabilera, gastua gastu hori fisikoki gauzatu den tokiarik esleitzen diona, defendatzeko, esan izan da administrazio publikoen jarduketak lurraldeen jarduera ekonomikoaren gainean duen eragina gertutik aztertzeko biderik onena dela. Hala ere, lurraldez lurraldeko kontu berri hauek ekarri dituen eztabaida, banaketa orekatuari buruzko eztabaida hori, kontuan hartuta, bigarren mailakotzat hartu behar lirateke, kasurik onenean ere, gastu publikoak enpleguan eta jarduera ekonomikoan izan ditzakeen zeharkako eraginak. Bestalde, fluxu monetarioaren metodoak efektu horiek egokiro biltzen dituelako ustea ere zalantzan jarri behar da; izan ere, kasu horretan garrantzitsuena ez litzateke Administrazioaren gastua non kokatzen den –metodologia horretan datu hori erabiltzen baita–, baizik eta horrek erosten dituen ondasun eta zerbitzuak non ekoizten diren; eta, normalean, ez da jakiten hori.

3. Euskadiren kasua

Atal honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren posizio erlatiboa aztertzen da, diru-sarreraren eta gastu publikoaren banaketan 2005eko eta 2011ko ekitaldietan honi dagokion parte-hartzearen ikuspegitik; biztanleko gastu eta diru-sarreraren indizeak erabili dira, Estatuko batez bestekoaren bidez normalizatuta, eta aldi bakoitzean berori 100ekin parekatu dira. Gastuari dagokionez, EAEk biztanleko gastu publikoan duen maila Estatuko bataz bestekoaren oso goitik dago, eta gastuaren indize agregatua 135 inguruan kokatzen da, bai 2005ean eta bai 2011n (ikus 1. grafikoa). Batez bestekoarekiko desbideratze gorakor hori gizarte-babeseko gastuaren aldetik dator neurri batean (pentsioak batik bat), batez bestekoaren gainetik kokatzen baita, argi

4.1 grafikoa


Gastuaren indizea biztanleko, zerga-ahalegin berean. Euskadi* Estatuko batez bestekoa = 100



(*) Lurraldeei egotz dakiokeen gastuan, eskualdearen finantzaketa ere sartzen da, zerga-ahalegin berean kalkulaturik, hau da, Euskadiko foru-ogasunek itundutako zerga guztietan "batez besteko" zerga-eskala aplikatuko zutela eta erkidegoak ez zuela bestelako zergarik sortuko pentsatuta.
Iturria: A. de la Fuente

4.2 grafikoa

Lurraldeei egotz dakiokeen gastuaren indizea biztanleko eta haren osagaiak, zerga-ahalegin berean. Euskadi. Estatuko batez bestekoa = 100



(*) Eskualdearen finantzaketa homogeneizatu zerga-ahalegin bera (ikusi aurreko grafikoko oharra) eta eskumen homogeneoak hartuta kalkulaturik da; hau da, kanpoan uzten da eskumen atipiko jakin batzuei lotutako finantzaketa, ez baitituzte erkidego guztiek beren egin.
Iturria: A. de la Fuente


Eta garbi (131 eta 129 indizeak), euskal biztanleen zahartze nabarmenaren eta kotizazio sozialen batez besteko altuaren ondorioz, batik bat (ikusi 5. grafikoa ere). Aldiz, batez bestekoaren oso azpitik kokatzen da EAE, erregulazio ekonomikoari dagokionez, eta, atal horretan, sail garrantzitsuena Europar Batasuneko nekazaritzako laguntzei dagokie, ia ez baita halakorik iristen eskualdera.

Gastu sozial altua baino garrantzitsuagoa da lurraldeei esleitzen dakizkizkiekeen gastuak (berezkoak) izena eman diogun atalean Estatuko batez bestekoarekiko ageri den desbideratze gorakorra: aztertu diren bi ekitaldietan, biztanleko gastuaren indizea 153koa da, eta, gero ikusiko dugunez, euskal lurraldeetako administrazioek duten finantzaketa altuaren adierazgarri da hori.

2. grafikoa lurraldeei esleitzen dakizkizkiekeen gastuetan bereizten diren osagaiak erakusten ditu. Batik bat errenta txikiaren eskualdeen zuzentzen zaizkien Estatuko eta Europako eskualde-laguntzak biltzen dituen sailan, batez bestekoaren oso azpitik kokatzen da Euskadi, errenta maila handia duenez hori espero izatekoa bazen ere. Bestalde, azpiegituren atalean EAEk duen posizio erlatiboan izan den hobekuntza nabarmenak erakarri du gure arreta, eta euskal Y trenbidearen eraikuntza-lanen hasierari zor zaio hori batik bat.

Lurraldeei esleitzen dakizkizkiekeen bestelako gastuak saila 3. grafikoa xehakatu da, zenbait osagai aztertuz; eta horien artean daude osasunaren eta hezkuntzaren arloetan transferitu ez diren funtzioetarako Estatuaren hondar-gastua eta kultura, justizian eta herritarren segurtasunean eta etxebizitzan egindako gastua. Herritarren segurtasunaren atalean Euskadik izan duen gastu izugarria nabarmentzen da hor, eta hezkuntzan (2005ean baina ez 2011n) eta osasun eta kontsumoan hautematen den desbideratze negatiboa konpentsatu baino areago egiten du, goranzko bidean..

4.3. grafikoa

lurraldeei esleitzen dakizkiekeen bestelako gastuen indizea biztanleko, eta haren osagaiak. Euskadi, Estatuko batez bestekoa = 100


Iturria: A. de la Fuente

Azalduenez, Euskadin lurraldeei esleitzen dakizkiekeen gastu handien iturri nagusia autonomia-erkidegoaren eta foru-aldundien finantzaketa onarekin lotuta dago; izan ere, 2. atalean adierazi dugunez, LLKPSn erabiltzen den metodologiak "eskualde-finantzaketa" gisa sailkatzen baitu, zatirik handienean. Arlo horretan biztanleko gastuaren indizea, eskumen homogeenetan eta zerga-ahalegin berean kalkulaturik, 198koa izan zen 2005ean, eta 193koa, berriz, 2011n, Estatuko batez bestekotzat 100 hartuta.

Kasu honetan, analisia berriaz ondo zorroztea komeni da; izan ere, autonomia-erkidego bat nahiko ondo edo gaizki finantzaturik dagoen zehazteko orduan, garrantzi handia dute, biztanleriaren neurriak ez ezik, biztanleria horrek adinen arabera duen egitura kontuan hartzeak edota beste ezaugarri geografiko batzuek ere (hedadura edo uhartetasuna); horrek eragin esanguratsua du autonomia-erkidegoen titulartasunaren pean dauden zerbitzuen hornidurako eskariaren edota kostu unitarioen gainean (hala nola osasunean eta hezkuntzan). Faktore horiek analisiaren barnean sartzeko, biztanleria doitu adierazleak kalkulatu da eskualdeen finantzaketaren sisteman, eta nahiko erraza da hori foru-erkidegoetara hedatzea ere. Ziurrenik, eskualdeen biztanleria gordinaren erreferentzia baino hobea eskaintzen digu, gainera, hemen interesatzen zaizkigun alderdiei dagokienez.

4.4. grafikoa

eskualdearen finantzaketa, eskumen homogeneoetan eta zerga-ahalegin berean. Euskadi




Iturria: A. de la Fuente

4. grafikoa Euskadik biztanleko duen finantzaketa konparatzen du biztanleko finantzaketa doituarekin eta araubide erkideko autonomia-erkidegoen multzoan aldagai horrek duen batez bestekoarekin (hau da, guztiak Nafarroa eta Euskadi salbuespentzat hartuta). Biztanleria gordina erabili beharrean biztanleria doituia erabiltzen denean, Euskadiko finantzaketaren adierazlea ia ez dela aldatzen ikus daiteke, eta horrek adierazten du autonomia-erkidegoaren zerbitzuetan biztanleko espero den kostua Estatuko batez bestekoaren inguruan kokatzen dela, biztanleriaren zahartzea beste faktore batzuekin konpentsatzen delako, hala nola lurraldearen hedadura txikiarekin. Beraz, behar-unitateko finantzaketaren atalean, euskal lurraldeetako administrazioek egoera onuragarriagoa dute araubide erkideko autonomia-erkidegoek baino, eta horixe ikusten da 4. grafikoa ageri diren azken bi zutabe multzoak konparatuz.

4.5. grafikoa

Diru-sarrera publikoak. Euskadi



Iturria: A. de la Fuente

Azkenik, diru-sarrera publikoen arloan, EAEn batez bestekoaren gainetik kokatzen da tributu-karga (116 dagokio 2005ean, eta 126, berriz, 2011n), baina, bere errenta maila erlatiboa aintzat hartuz gero, handiagoa legokioke, berori 127koa bailitzateke 2005ean eta 134koa 2011n. Foru-ogasunek duten zerga-erregimen

bereziari zor zaio, neurri batean, emaitza hori, zuzeneko zergen gainean duen ahalmen araugileaz baliatu baitira zerga-presioa araubide erkideko gainerako lurraldeetan den mailatik behera ezartzeko. 5. grafikoko ezkerreko lehen zutabe multzoa, EAEk zergetan egiaz lortu dituen diru-sarrerak islatzen dituena, bigarren multzoarekin alderatzean ikusten da nabarmen faktore horren garrantzia, Estatuko gainerako lurraldeetan aplikatutako araubidea autonomia-erkidegoan aplikatuz gero lortuko ziren diru-sarreraren estimazioa biltzen baitu bigarren multzo horrek, foru-lurralde ez direnetan ezartzen diren batez besteko zerga-eskalak erabilita.

4. Ondorioa

Gastu eta diru-sarrera publikoen banaketan, EAEren egoeraren ezaugarri dira, alde batetik, lurralde-finantzaketaren arloan betetzen duen posizio onuragarria, eta, bestetik, EAEko errenta maila kontuan hartuta espero zitekeena baino zerga-presio txikiago izatea; itun-erregimenak zergetan dakarren autonomia handiaz baliatuta beheranzko joera hartzearen ondorio litzateke azken hori.

Erreferentziak

de la Fuente, A. (2014). “¿Qué nos dicen las nuevas Cuentas Territorializadas?” Estudios sobre Economía Española, 2014-13 zk., Fedea, Madril.

<http://www.fedea.net/documentos-hacienda-autonomica/>

de la Fuente, A., R. Barberán and E. Uriel (DBU, 2014). “Un sistema de cuentas públicas territorializadas para España: Metodología y resultados para 2011.” Estudios sobre Economía Española, 2014-03 zk., FEDEA, Madril.

<http://documentos.fedea.net/pubs/eee/eee2014-03.pdf>

Generalitat de Catalunya (2014). Metodologia i càlcul de la balança fiscal de Catalunya amb el sector públic central l'any 2011. Departament d'Economia i Coneixement, Bartzelona.

http://economia.gencat.cat/web/.content/70_economia_sp_financament/arxiu/estadistiques-informes/Monografia-BF-2011.pdf

5 Taulak

5.1 koadroa

Euskadiko ekonomiaren koiuntura adierazle nagusiak

| % | 2014 | | Batazbesteko hazkundera urte haseratik (u/u) | | Azken datua (h/h, uez) | | Azken hilabetea |
|--------------------------------|---------|----------|--|----------|------------------------|----------|-----------------|
| | Euskadi | Espainia | Euskadi | Espainia | Euskadi | Espainia | |
| Txikizkako salmentak | 1,5% | 0,9% | 0,0% | 3,4% | 0,1% | 0,7% | mar-15 |
| Matrikulazioak | 18,7% | 18,8% | 29,9% | 25,8% | 10,9% | -9,5% | api-15 |
| ZSJI (IASS) | 4,2% | 2,7% | 1,8% | 4,1% | 0,2% | 1,0% | mar-15 |
| Bidaari egoiliarak (1) | 2,7% | 4,8% | 8,0% | 8,2% | 11,9% | 6,8% | mar-15 |
| Egoiliarren ostatu-gauak (1) | 4,4% | 3,7% | 11,8% | 8,7% | 14,5% | 5,7% | mar-15 |
| IPI | 0,1% | 1,5% | -0,8% | 1,3% | 0,0% | 1,1% | mar-15 |
| Etxebizitza bisatuak | 2,0% | 1,8% | 43,7% | 48,2% | 1,2% | 6,2% | ots-15 |
| Etxebizitza salerosketak | 8,3% | 2,6% | 17,9% | 8,4% | -0,3% | 5,8% | mar-15 |
| Esportazio Errealak (2) | 9,2% | 2,8% | -6,5% | 3,7% | 0,7% | 3,1% | mar-15 |
| Inportazioak | 13,3% | 7,7% | -6,5% | 3,4% | 8,9% | -0,4% | mar-15 |
| Bidaari Atzerritarak (3) | 1,7% | 4,6% | 9,2% | 4,1% | 11,9% | 3,0% | mar-15 |
| Atzerritarren Ostatu-gauak (3) | 0,9% | 2,9% | 11,6% | 0,3% | 12,3% | -0,6% | mar-15 |
| Afiliazioa SSn | 0,3% | 1,6% | 1,9% | 3,3% | 0,1% | 0,4% | api-15 |
| Langabezia Erregistratua | -2,1% | -5,6% | -3,5% | -6,7% | 0,3% | 0,5% | api-15 |

(1) Espainiako Egoiliarak (2) Ondasun esportazioak (3) Espainiako egoiliarak ez direnak
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministeritzetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

5.2 koadroa

EDB: aurreikuspen makroekonomikoak (Urteko bariazio-tasak %-tan, kontrakorik adierazi ezean)

| | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 (a) | 2016 (a) |
|---|-------------|-------------|------------|------------|------------|
| BPG erreal | -0,8 | -0,4 | 0,9 | 1,6 | 2,2 |
| Kontsumo pribatua | -1,3 | -0,6 | 1,0 | 1,7 | 1,6 |
| Kontsumo publikoa | -0,1 | 0,2 | 0,7 | 0,5 | 0,9 |
| Kapital finkoaren eraketa gordina | -3,5 | -2,4 | 1,0 | 1,5 | 4,4 |
| Izakinen aldaketa (hazkunderako ekarpena) | -0,7 | -0,1 | -0,1 | 0,0 | 0,0 |
| Barne-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena) | -2,2 | -0,8 | 0,8 | 1,3 | 2,0 |
| Esportazioak | 2,6 | 2,1 | 3,7 | 5,2 | 5,9 |
| Inportazioak | -1,0 | 1,3 | 3,8 | 4,9 | 6,1 |
| Kanpo-eskaria (hazkunderari egindako ekarpena) | 1,4 | 0,4 | 0,1 | 0,3 | 0,2 |
| Prezioak | | | | | |
| KPI | 2,5 | 1,4 | 0,4 | 0,1 | 1,3 |
| Azpiko KPI | 1,8 | 1,3 | 0,9 | 0,8 | 1,2 |
| Lan merkatua | | | | | |
| Enplegua | -0,5 | -0,7 | 0,6 | 1,0 | 0,9 |
| Langabezia-tasa (bizt. akt. %) | 11,3 | 12,0 | 11,6 | 11,0 | 10,3 |
| Sektore publikoa | | | | | |
| Defizita (BPGren %) | -3,6 | -2,9 | -2,4 | -2,1 | -1,6 |
| Zorra (BPGren %) | 89,1 | 90,9 | 91,9 | 92,4 | 91,9 |
| Kanpo sektorea | | | | | |
| Kontu korrante saldoa (BPGren %) | 1,5 | 2,2 | 2,3 | 3,2 | 3,2 |

(a): Aurreikuspena

Aurreikuspenen itxiera-data: 2015eko apirilak 30

Iturria: erakunde ofizialak eta BBVA Research

5.3 koadroa

Aurreikuspen makroekonomikoak: Barne Produktu Gordina

| (Urteko batez bestekoa, %) | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 |
|----------------------------|------|------|------|------|------|
| Estatu Batuak | 2,3 | 2,2 | 2,4 | 2,9 | 2,8 |
| EDB | -0,8 | -0,4 | 0,9 | 1,6 | 2,2 |
| Espainia | -2,1 | -1,2 | 1,4 | 3,0 | 2,7 |
| Erresuma Batua | 0,7 | 1,7 | 2,8 | 2,5 | 2,3 |
| Latinoamerika* | 2,8 | 2,5 | 0,8 | 0,6 | 2,1 |
| EAGLES ** | 5,8 | 5,6 | 5,3 | 4,9 | 5,3 |
| Asia - Ozeano Barea | 5,7 | 5,9 | 5,7 | 5,8 | 5,8 |
| Japonia | 1,8 | 1,5 | 0,0 | 1,3 | 1,2 |
| Txina | 7,8 | 7,7 | 7,4 | 7,0 | 6,6 |
| Asia (Txina gabe) | 4,1 | 4,5 | 4,3 | 4,9 | 5,0 |
| Mundua | 3,4 | 3,4 | 3,4 | 3,5 | 3,9 |

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexiko, Peru eta Venezuela

** Bangladesh, Brasil, Errusia, Filipinak, India, Indonesia, Irak, Korea, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Saudi Arabia, Taiwan, Txina eta Turkia

Aurreikuspenen itxiera-data: 2015eko apirilak 30

Iturria: BBVA Research eta NDF

5.4 koadroa

Finantza aldagaiak

| Interes-tasa Ofizialak (Epe Amaiera) | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 (p) | 2016(p) |
|---|------|------|-------|----------|---------|
| Estatu Batuak | 0,25 | 0,25 | 0,25 | 0,50 | 1,50 |
| EDB | 0,75 | 0,25 | 0,05 | 0,05 | 0,05 |
| Txina | 6,00 | 6,00 | 5,60 | 4,60 | 4,60 |
| Interes-tasak 10 urtera (Batez bestekoa) | | | | | |
| Estatu Batuak | 1,8 | 2,3 | 2,5 | 2,1 | 2,7 |
| Alemania | 1,6 | 1,6 | 1,2 | 0,3 | 1,0 |
| Kanbio-tasa (Batez bestekoa) | | | | | |
| USD-EUR | 0,78 | 0,75 | 0,75 | 0,96 | 0,94 |
| EUR-USD | 1,29 | 1,33 | 1,33 | 1,04 | 1,07 |
| GBP-USD | 1,59 | 1,56 | 1,65 | 1,47 | 1,60 |
| JPY-USD | 79,8 | 97,5 | 105,8 | 124,3 | 131,7 |
| CNY-USD | 6,31 | 6,20 | 6,14 | 6,19 | 6,09 |

Aurreikuspenen itxiera-data: 2015eko apirilak 30

Iturria: BBVA Research

LEGE-OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektiotzat. Aldagai ekonomikoen bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukiak aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

Txosten hau Espainia eta Europako Unitateak prestatu du:

Ekonomia Garatueterako ekonomialari burua

Rafael Doménech
r.domenech@bbva.com
+34 91 537 36 72

Espainia

Miguel Cardoso
miguel.cardoso@bbva.com
+34 91 374 39 61

Joseba Barandiaran
joseba.barandia@bbva.com
+34 94 487 67 39

Juan Ramón García
juanramon.gl@bbva.com
+34 91 374 33 39

Félix Lores
felix.lores@bbva.com
+34 91 374 01 82

Antonio Marín
antonio.marin.campos@bbva.com
+34 648 600 596

Myriam Montañez
+34 954 24 74 86
miriam.montanez@bbva.com

Virginia Pou
virginia.pou@bbva.com
+34 91 537 77 23

Juan Ruiz
juan.ruiz2@bbva.com
+34 646 825 405

Pep Ruiz
ruiz.aguirre@bbva.com
+34 91 537 55 67

Amanda Tabanera
amanda.tabarena@bbva.com
+34 91 807 51 44

Camilo Andrés Ulloa
camiloandres.ulloa@bbva.com
+34 91 537 84 73

BBVA Research

Taldeko Ekonomialari Burua

Jorge Sicilia Serrano

Garatutako Ekonomiak

Rafael Doménech Vilariño
r.domenech@bbva.com

Espainia

Miguel Cardoso Lecourtois
miguel.cardoso@bbva.com

Europa

Miguel Jiménez González-Anleo
mjimenezg@bbva.com

Estatu Batuak

Nathaniel Karp
Nathaniel.Karp@bbva.com

Garatze bidean diren Ekonomiak

Garatze bidean diren Ekonomien

Zeharkako Análisis
Álvaro Ortiz Vidal-Abarca
alvaro.ortiz@bbva.com

Asia

Le Xia
le.xia@bbva.com

Mexiko

Carlos Serrano Herrera
carlos.serranoh@bbva.com

Latam koordinazioa

Juan Manuel Ruiz Pérez
juan.ruiz@bbva.com

Argentina

Gloria Sorensen
gsorensen@bbva.com

Txile

Jorge Selaive Carrasco
jselaive@bbva.com

Kolonbia

Juana Téllez Corredor
juana.tellez@bbva.com

Peru

Hugo Perea Flores
hperea@bbva.com

Venezuela

Oswaldo López Meza
oswaldo.lopez@bbva.com

Finantza Sistemak eta Araudia

Santiago Fernández de Lis
sfernandezdelis@bbva.com

Finantza Sistemak

Ana Rubio
arubiog@bbva.com

Finantza Barneraketa

David Tuesta
david.tuesta@bbva.com

Araudia eta Politika Publikoak

María Abascal
maria.abascal@bbva.com

Política de Recuperación y Resolución

José Carlos Pardo
josecarlos.pardo@bbva.com

Erregulazio Koordinaketa Globala

Matías Viola
matias.viola@bbva.com

Arlo Globalak

Inguru Ekonomikoak

Julián Cubero Calvo
juan.cubero@bbva.com

Finantza Inguruak

Sonsoles Castillo Delgado
s.castillo@bbva.com

Berrikuntza eta Prozesuak

Oscar de las Peñas Sánchez-Caro
oscar.delaspenas@bbva.com

Interesdunak, helbide honetara zuzendu:

BBVA Research

Paseo Castellana, 81 - 7ª planta
28046 Madrid (España)
Tel.: +34 91 374 60 00 y +34 91 537 70 00
Fax: +34 91 374 30 25
bbvaresearch@bbva.com
www.bbvaresearch.com